

Mixiolacri Gogoragarrriak

VICTOR SANMIGUEL



MIXIOLARI GOCORAGARRIAK

Bitor Sanmigel, Monsiñora.

Kuwaitteko Gotzaiña

Karmeldarren ordenakoa

MIXIOLARI GOGORAGARRIAK

BITOR SANMIGEL, Monsiñora

KUWAIT'eko GOTZAIÑA

Karmeldarren ordenakoa

Ediciones «EL CARMEN»

Gasteiz - 1980

AURKIBIDEA

<i>Agerpena</i>	VII
<i>Sarrera antzera</i>	IX
<i>Kerala</i>	XV
Aita Juan Jose Bilbao	1
Aita Aureliano Landeta	15
Aita Zakarias Salterain	29
Aita Heliodoro Imizkoiz	35
Aita Balentín Zubizarreta	41
Aita Salustiano Lazkano Orobio	47
Aita Blas Zinkunegi	55
Aita Juan Damaskotarra	65
Aita Diego Jose Zabala	77
Buenaventura Arana, Monsiñora	87
Aita Juan Bixente	95
Bernardo Arginzoniz, Monsiñora	105

AGERPENA

Bitor San Miguel Monsiñora nire familiko antxiñako laguna da. Geroago Karmeldar izateak eta Ordenak, gogoaren elkartez lotu gaitu.

Origaitik, bere mixio lan au nik aurkestuteko bere naiari, ezin ezetzik emon eta ukorik egin.

Bere egillea liburuak errez eta egokitasunez agertzen dakian gizona da, bera ibili dan toki eta esku artu daben lanetako bere ikuspegi, giro eta ezaupideak irakurleari egoki eta oparo azalduten dakiana.

Liburu au gogoaren azterketa baten antzeko da, Ebangelioko lan eta zabalkundearen euren osotasun eta nortasunagaitik benetan maitatuak izan ziran gizonak agertuz.

Origaitik San Miguel Monsiñorak bere bizitza mardulak damotson goi-goitiko nortasunez begiratu eta aztertu ditu.

Euren lanen bizi-agerpen kritiku bat baiño, eurentzako omen eta deduzko liburua geiago da; Jaungoikoa eskertuz eta inditar eleizaren alde gauza arrigarriak egin zituen gizon andi arein gorasarrea da.

Irakurgai onein irakurleak gogo sendo eta sakoneko gizon andien ikusketa edo ezaupidea erraz lortuko dau, euren bizitzan goi-go-

rengo asmo bateri lotuta bizi ziran gizonena: Jaungoikoa eta bere serbitzua.

Gure aurrera ekarten diran gizonak ez dira asko. Argi bideko zeru dizditsuetan argi eder ziran gizonak dira. Danak Jaunaren betiko bake eta maitasuna bizitera joanak. Beste argi gidari asko oraindik gure artean bizi dira.

Euren artean, ezpai barik, liburu onen egillea sartu leike.

Izan be ingelesez agertutako azken liburuak, "Kerala adios" eta "Pastor in Kuwait" bere agergarri zintzo dira. India'ko Ego aldean karmeldarren Ordenak euki ditun Avila'ko Teresa'ren seme ta jarraitzaile argi izan diran karmeldar gizarte bat erakusten dauskue.

Abaye'ko abade ikastetxe nagusian igarotako 38 urteak lenengo, eta gero Kuwait'eko gotzain lez deroazan 13 urteak, toki txalogarri baten duin egiten dabe.

Zorionak, anai, bizitza guztiko zure zerutar lanagaitik; Mixiñoien alde euki dozun eskintza osoagaitik eta zure idazlan sakonakaitik.

Gateiz'en, 1979'ko Udan.

FELIX MALAXETXE BARRIA, Probintziala

SARRERA ANTZERA

Ni, 1928 urtean, India'rako bidean asi nitzanean, Nabarra'ko San Joakin izeneko karmeldarren erri-talde edo probintziak mixio leku ezbardin bi eukazan Malabar ingurutan: Puthempally'ko Seminarioa eta benetan Mixio toki zan Verapoly.

Mixioetara joaten ziranak euren deia eta gogoa atarako zalako joaten ziran, edo ta euren Nausien eritzien aburuan.

Seminarioetako bizitza, bai Puthempally'n eta bai Alwaye'n, mixio tokietan erabilten zan bizi-eratik ez bardina zan. Eratsuago zan, zainduago, eta aurre-aurreko mixiolariak eukiten zituen eragozpen eta gora bera barik.

Alaz eta Seminarioko bizitza oi-oia zan, kanpai ots eta deiaren bakurpean, batez be bakoitzaren nai eta azkatasunari alde asko kendu edo galdu eraginda. Eta noerbere azkatasuna, India lako erbestean, asko maitatzen dan birtutea da.

Bestalde, eleiz ikastetxe andi bateko irakasle izateak, ingurukoan artean norberari be entzute eta nortasun berezi bat emoten daki. Aita Juan Bixente agurgarriak berezko eban gatzez esaten ekian, Puthempally'ko irakasleak kanonigoen bizitza eroela.

Baiña ez zan dana aipamen eta onore. Seminarioan lan egin bear eban mixiolariak ba ekian errialde areitako abadegintzan kontu emon bear andia artzen eballa.

Nik, eskatu eustelako edo aukeratu ninduelako, Seminarioan lan egin bear izan neban, Eleizak gure Ordenari eskifita eukan zeregifietako bat beteten. Aita Segundo lagun nebala, sasoi aretan Puthempally'ko erretore zan Aita Juan Jose'ri laguntzeko zori andia euki neban.

Niri izentatu eusten Seminarioa, India'tik zar eta maitagarrieneakoa zan. 1.682 urtean sortua, portugaldarrak euren indarra galtzen asi eta olandar protestanteak Malabar errialdean sartzen asi ziranean.

Puthempally baiño zarrago zan Verapoly'ko Seminarioa, 1.682 urtean karmeldarrak irasia, siriarrak eta latindar oituretako Malabar errialdeko abadeak goi-maillan gertu eta eziteko.

Sasoi aretan bertako abade bakar batek erakusten eban parroketan abade izateko premiña-premiñazko zana, Garbi esateko, oiñarria bakarrik. Au da, meza uts utsa esateko gai izango zan abadea. Argiago esanda, meza emon eta lapikoari begira geratzeko abadea.

1.830 urtean, gure Ordenako nausiak Erroma'n batu ziran Malabar errialdeko buru egiten ebenekin, eta Puthempally'n Seminario nausi bakar bat sortzea erabagi eben, eurentzako 70 lagundik gora artuko zitun tokia gertuz.

Seminario au 1.866 urtean zabaldu zan, Ratisbona'ko karmeldarren zuzendaritzapean. Babiera'ko fraileak ziran. Ikastetxe au ondo eratu eta gertuten alegin biziak egin zitun Aita Bonifazio alemaniar Erretore argiak eta goi mailla lortu eban.

Baiña denporen kakua: alemaniarrek ez euken lagun askorik. Eta Jesus'en Biotzeko Aita Ezekiel Ordenako General zala, irakasle barriak bialtzea erabagi eban, Nabarra'ko San Joakin fraile-taldeko lagunak ortarako aukeratuz. Ala Aita Berardo; ala baita Aita Angel Mari, geroago Verapoly'ko gongotzai edo artzobispo izatera eldu zana.

1.912 urtean Seminario au oso-osorik eskiñi yakon San Joakin fraile taldeari eta Aita Juan Jose izentatu zan bertako Erretore. Beragaz batera beste iru lagun jator sartzen ziran irakaslien artean: Aita Aureliano, Heliodoro eta Zakarias agurgarriak.

Orrelaxe izan zan Malabar errialdean zeregin bikoitz baten asiera gure taldeko frailientzat: Verapoly-Vijapuram'go Mixioa eta Puthempally-Alwaye'ko Seminarioaren ardura.

Ni'be eldu nitzan alako baten Seminariora, Erretore berbera lagun nebala. Lenengotatik begiko izan yatan errialdea, len Malabar, gaur Kerala deitzen dana.

Bere inguru, ikuspegi eder, itxasertz zoragarri, koko arbolaz beateak; mendi ugari ta ez-bardin, zugazti edo arboladitan aberatsak; ugaria baita be abere bizitzan.



*Bitor Sanmiguel, Monsiñora
Kuwait'eko Gotzaiña
Karmeldarren ordenakoa*

Niretzaz Suiza'ren antzeko zan, nai ta giroa, tropikoko girotako bero eta bustia, astunago izan.

Pobretasun andia igarten zan erritarren artean, baiña jente argi, gertu eta adimen zorrotzeko ziran.

Jaiak, fede jaiak, indutarrenak lez kristau erakoak, andikiro ospatuten zituen. Erriak, mixiolariei esker, kristau talde ona eukan.

Bete-betea esanda, lenengoz ikusten ebanantzako, errialde alai eta ikusgarri eta tengarria zan.

Dan danen gaiñetik niretzat atsegiñena, san Joakin fraile taldeko irakasliekin bat egitea izan zan. Eurekin eroango nitun nire pozak eta nire izerdiak mixiolari bizitzan ibili nitzan 38 urte luzetan. "Eximii viri in quibus labores introibimus". Eurekin, obeto esanda, alkar-tasun betean ospatu genduzan gure atsegiñaldiak; eta alkarregaz baita garratz aldi eta negar aldiak be, Seminarioko bizi kezkatu eta ardura-tsu aretan.

Ainbeste urte egin ondoren, Eleizak eta nire Ordenak ardura andi eta goragokoa leporatu eusten, Kuwait'eko errialde gordiñetako Gotzain izentatuz.

Liburu onetako orrialdetan, Mixioan nai Seminarioan nik eza-gutu eta nigaz bizi ziran gizon agurgarrien nire ikus-bide batzuk emon nai dodaz. Mixiolari eta fede gizon arduratsu ta alegintsu arein flash ariñak.

Irakurleen artean maitagarri ta txalogarri geratu beitez gizon oneik. Ori da nire asmo ta gogoa, merezi ebelako.

Besteren batek, ni baiño obeto gertutakoen batek, Malabar ingur-tako errialdean gure karmeldarrak egindako lana zeatzago emoteko aukera eta gertaera artu lei.

Nik, aidean lez, azal azaletik, aita Juan Jose, Aureliano, Zakarias, Heliodoro, Balentin, Angel Mari Monseñora, Salustiano, Juan Damasceno, Diego, Aita Juan Bixente doatsua eta Buenabentura Monseñoraren nire ezaupide eta ikuserak agertuko dodaz.

Urte asko mixioetan igaro eta norbere bigarren aberritzat artu-tako lurraldetan ni lez bizitako batek, nai ta ez gogoan eta biotzean sartuta euki bear eurekin erabilitako jardun, lan, neke ta arduren urratsak. Batez be egun alaiak gero ta pozago gogoratzen dira, urteak urteen gain dakarreen gogorpenen artean.

Arrenkura lako bat sortuten dau orrek, lengoaren gomuta mai-
tekor bat, lengo ori bakoitzaren bizitzako onentzat artuta.

Emen, Kuwait'en, España eta India'ren erdi bidean, Mixio oneta-
ko arduren kezka eta zuzendaritzan, India'ri lotuago igarten da bat,
orain 51 urte lagatako españar laterri ta inguruei baiño.

Origaitik, aukera bat billatu ta euki orduko, pozik gogoratzen
ditu batek lur areitan eta mixio talde aretan euki eta bizitako kezka,
buruauste eta ekintzak.

Puthempally-Always'e ko seminario eta Kottaya mixio errian 38
urte igaro ondoren, Kuwait'eko Gotzai izendatu ninduenean, Malabar
errialde aretan egindako lanen oroitzak, adoretu egiten nau, indartu,
biztu eta poztu Kuwait alde onetako mixioan dagozan katoliko taldeen
artean gogoz lan egitera. Len ezagutu nitun kristau eta erri on baten
artean lan egiten sentidutea lez da.

Nire abadegintzako berrogetamar urte beteteen, urrezko eztaiak
ospatuteko, Kerala Agur liburua idatzi neban, Karmeldarrak Kerala'n
egindako lana agertu, erakutsi eta malabar errialdeko eleizgizonak eza-
gutu dagien.

Orain, orduko lagunen gomutak barriztatzean, India'n Krristo'ren
Eleizaren alde ainbeste lan egin ebenen oroitzak gogoratzean, batez
be gure Nabarra'ko San Joakin errialdeko edo probintziko frailien la-
nak ezagutzean, euren nortasunaren ezaugarri batzuk agertzeko pre-
miña bururatu dauste, mixioekin arduratuta bizi diran eleiztar eta
mundutarrentzat fede eutsigarri eta berogarri izango diralakoan.

Burutapen ori beteteko, ba daukat beste tengarri bat be: Mixio-
lari agurgarri eta maitagarri arein senide asko oraindik bizi dirala
ba dakit eta euren pozgarri agertu nai dot liburu au.

Kuwait 1979.

K E R A L A

Gure egunetako politika Edestian sartzen dan egitadarik goragarrienetako bat, ezpai barik, India'ri azkatasuna ezagutzea izan zan (1947).

Gran Bretaña'ren kolonietako neurri bagako erri andi bat, gizaldi ta erditan bere menpean egona, arengandik banatuta geratzen zan, adiskidetasunik galdu edo eten barik.

Amerika eta Afrika guztia bat eginda baiño bizilagunez ugariago zan lurralde ikaragarri bat, zazpiteun milloetik gora bizilagunetan, munduko late-rrien artean bere nortasun bereziz agertzen zan.

Indostan'eko lurraldeak bere azkatasuna lortzean, India, Bharat, irureun erreñu baiño ugariagoko erri pilloa zan, mundu alde orreri berezitasun izugarria emoten eutsen euren maharaja aberats eta arroekin, eta Britaniar Erregetzaren aginterritako beste ainbat agenpen eta ezaupide bereziekin.

India barriaren lenengo zeregiña, errien ugarritasun eta naste areri nortasun eta ezaupide jator bat emotea izan zan, erri legez aurrera jo al izateko eran.

Lurralde zabal eta ikaragarri au eratzean, bere erabideko gorakada ta berakada ugarien ondoren, Indiar Lege-Batzar nausiak antxiñako kaisalerrri edo imperio a ogei ta bi laterri erdi alkartuetan banatu eban. Euretariako bat, Kerala izenagaz.

Lurraldien banaketaren oiñarririk bereziena izkuntza izan zan. Gure onetan, Malayalam.

India azkatu ta erabide barrian sartutako politika mapetan lenengoz sartzan zan Kerala izena.

Lengo denporetan errialde au Malabar izenagaz ezagutuago zan. Izen ori erabilten eban bere irakurleentzat "La Obra Máxima" aldizkariak: Orre-la, Malabar eta gure mixiolariak; Malabar'eko bataioak, eta abar. Malabar izena, mixio izkuntzan, itz zoragarri ta miresgarria zan,

Bere esan naian, bere etimologian, Malabar itzak "Erri menditsua" esan nai dau, "malayalam" itzak esan nai daben lez erri menditsuko izkuntza.

Antxiña toki areitatik ibiltzen ziran portugaldar eta beste ibiltariak, itxa sertzera eldu baiño len be, mendien keriza, mendien itzala igarri edo oartuten eben, eta ortik izen orregaz deitu. Eta izen orregaz egin zan erri entzutetsu Edes-tian, Istorian.

Izatez "Kerala" deitura Malabar'en erri deitura zan, Sanskritotik dato-rrena: Keralam, Koko erria.

Ondo aukeratutako deitura danik ezin ukatu, kokoekaz alikatzen dalako emengo jentea, eta koko arboladi luzeak itxasertz oneri paradisuiko edertasuna lakoa emoten dautselako.

India barriztu eta erabarritzean, emengo politikariak Laterri barri au Kerala erri izen jatorrakin deitzea nai izan eben.

Oraingo Kerala'k antxiñako Cochín eta Travancore erreñutako gure mixiolarien Malabar lurraldearen zatirik geientsuena artzen dau.


Auxe izan, ain zuzen, liburu onetan agertzen diran MIXIOLARI GORAGARRIAK euren ekintzak erabili zituen lurraldea.

Lautadetan, esandako kokoen gain, zugaitz eta landaredi zoragarria asten da. Mendietan barriz, eta euren gibeletan, kokoen orde, baratz ugari ta aberatsak, eurretan ingalandarrei ain atsegin yaken te onuragarria artzen dala.

Mendietatik jeisten diran ujoldeak, lautadetan, beian egiten diralako, ur-leku asko sortu eragiten ditue eta origaitik ur bide asko billatzen dira berezko kaiak osotzen dituela. Origaitik, askok, Sorkalde'ko Venecia izena emoten dautse toki oneri.

Kerala dagon leku zoragarri onek, tengada ugari egin izan dautse, batez be antxiñako merkatariei, eta Erdi Sorkalde eta Europa arteko merkatu tokizat aukeratu.

Itxura ba dago beintzat, Vasco de Gama etorri baiño lenago, fenizitarrak etorri zirala Malabar alde onetara, usaidun belar, marfil, sandalo eta abarren billa. Eta geroago gerkarren ontziak jarraitu eutsela. Oneik Persiar Kolkotik etortzen ziran, zeaztuteko, Basora'ko portutik. Gaurko nire Kuwait'dik laster egiten da portu au. Gerkarren artetik Erromatarrak etorri ziran Itxas Gorri'tik. Ori errez baieztu lei, azken aldian malabar itxasertzean billatu diran erromata-rran diruekin. Erri menperatzaillie onei judearrak jarraitu eutsen gero. Ba dirudi judear oneitako batzuk Nabukodoñosor'ek Jerusalem'go erri santua Kristoren aurreko 587 urtean menderatu ebanean iges egindañoak izan lei-



kezala. Ziurra dana eta edesti kontutan ezagutzen dana au da: beste judear talde andiago bat Malabar lurraldean agertu zala Tito'k Jerusalem apurtu ebanean, Kristo'ren urtetako 72 garrenean; eta beste talde ugari bat Espafia'tik bialdutakoak osotu ebela. Igesaldi oneitako urratsak oraindik geratzen dira.

Jesukristo il eta laster agertu ziran kristiñauak Kerala'n, eta denporekaz lurralde onetako zati ugari ta itxurazko bat osotu eben.

Geroago, Itxas Gorri eta Persiar Kolkotik etorrita, arabiarrek, moroak sartu ziran eta Albuquerque eta Alfonso'ren itxasontziak eragozpendu ez ba eben, sultan-erri bat eratuko eben bertan. Areik, portugaldarrak izan ziran Malabar lurralde onetan Kristauen mesedean jokatu ebenak, moroen naiak beratuz.

Azkenez, nai eta berandu, europarrak be agertu ziran Malabar errialde onetan: XV garren gizaldiaren amaieran portugaldarrak; XVII garren gizaldiaren bigarren erdialdean, olandarrak; eta geroago, XVIII garren gizaldiaren azkenetan, ingalandarrak.

Mundutarren ibiltze oneik zotin andia eragin eutsen 1656 urte ezkeroztik Karmeldarrak an izentatuta euken Mixio lurraldeari.

Gaurko Kerala'k 35.000 kilometro lautu daukaz (Catalunya'k baiño zerbaít geitxuago) eta ogeitairu milloe bizilagun.

Ogeitairu milloe orreín artean, kristauak, danetara be, bost milloe ta erdi dira; musulmandarrak lau milloe; eta gaiñerakoak, amairu milloe ta piku, hindutarrak dira, euren talde eta arrazetan.

Kerala'ko bost milloe ta erdi kristauak, India'n dagon kristautasunik ugariena osotzen dabe. Indostan guztian banatuta dagozan beste kristau talde guztien artean, amalau milloera elduko dira osta-osta, au da, errialde aretako euneko bi baiño zerbaít geitxuago, kontuan eukita ango bizilagunak 650 milloera elduko dirala.

Kristau erriaren talderik ugarienak Bombay, Goa, Mangalore eta Kerala'n billatzen dira.

Irakaskintzan, Kerala Laterriak beste Indiar Laterri guztiak gainduten ditu. Eta nausitza au urte askotatik dauka eta berari eusten alegintzen da.

Nai eta Kerala, Laterri lez, oraintsukoa izan, mundu guztian ezagutua izan da bere izena, bera izan dalako auteskundetan komunista era erri erakundetzat aukeratu eban lenengo laterria. Baiña erakunde onrek gitxi iraun eban. Barriro be, auteskunde azkeetan, auteskundeak galdu eta aginpidea laga egin bear izan ebelako. Alaz eta Kerala'ren erri erakundea ikasgarria da. Esan

geinke España'n Carrillo jaunak egin izan nai daben itun berezia eta berak aukeratu nai izan daben eurokomunismoa; Italian Berlinguer jaunak asmatu eta aurrera eroan nai izan ebana lez, Kerala'n onartu nai izan zirala, Errusi aldean eremuetako otsoa mantsotuta gero.

Auxe da gure lurraldea. Nai ta ez lurralde onek tengada berezi bat eragin bear guri eta maitasun barri bat sortu eragin bear, ementxe ibili zalako bere mixio lanetan gure Jabier'ko Frantzisko deuna, eta ementxe jarraitu dautselako bere odolekoak, guk emen poztasunez eta ametsez beterik agertu eta goratu nai doguzan mixiolari goragarriak.



Aita Juan Jose Bilbao

1871 - 1945

Euskal mixiolari gogoragarrien nortasunak agertzen astean, Aita Juan Jose Bilbao lenen aitatzera legezko da niretzat.

1928 urtean India'rako izentatu ninduenean, bera izan zan lenen agurtu neban mixiolaria. Eta ordutik aurrera, Always'ko Seminarioan 1945 urtean il arte, etenbako jardun eta egoerak euki genduzan.

Edonoiz eta edonun ere, gure mixiolariak agertzean, Aita Juan Jose danen aurrez eta goren agertu bearrean nago. Izan be alkarregaz bizitako ogei urteak, batzutan menpeko lez, bestetan lankide ta adiskide lez, egun alaietan nai neketsutan beti bardin, bere argiz bete dabe nire irudimena.

1928 urteko Martia'ren azkenetan zan.

Begoña'n nengoan, Teologi ikasten. Ba ekien mixiolariak ara joaten. Egun atsegiñak igaroten genduzan eurekin. Eta bein Aita Juan Jose agertu zan. Olgetako orduan gebiltzan. Berak Puthempally'ko Seminariorako lagunak nai zitun.

Niretzat, Indietara joatea, ezagutzen ez neban mundu ameslari eta eskutuko batera joatea zan.

Gaiñera, India'ko Seminariora joatea, gizaldien gizaldietatik etorran kultur baten ikastetxe ta eutsigarri zan etxe baten sartzea zan. Ez neban uste orretarako gertuta nengoanik.

Baiña... Aita Juan Jose'ri itandu neutsan zer egin ete neikean nik andik. Eta berak, lenengotan beintzat, Aita diru zaiñari edo prokuradoreari lagun egitea izango zala. Eta bide batez, garrantzi andirik euki ezarren, ikasi bearreko diran gai batzuk erakusten jardun neikeala.

Ori entzun eta ezin ezetzik emon.

Pozik gertu nitzan nire laguntasuna sekintzera, an zerbait egin al izango neban itxaropenez.

Bigarrenez be egon diñan. Nire eskintzaren betetasunez konturatzan asi nitzan.

Aita Juan Jose'k Europa'rako osteran ekarren arduraren garran-

tziz konturatu nitzan, baiña oraindik gazte nitzan bete-betean igarteko.

Erretoreak argi ikusten eban, gure Ordenak eta gure Errialde edo Probintziak Seminarioa aurrera eroan bear ba eben, une aretan eukan baiña irakasletza egokiagoa bear ebalá. Eta diruz be obeto ordaindu bear zala, Puthempally'ko etxe zarra egokitzeko edo ta barrien barri asitako etxe eder bat egokitzeko Seminariotzako.

Egia esateko, diru kontuan ez egoan ainbeste akats. Bai erakusleen artean.

Aita Juan Jose'k bere itxaropen eta asmoak etenda ikusi zitun. Min geiago, ezezen geiago, ain zuzen be karmeldarren probintziala bere odoleko anai berbera zalako : Aita Ezekiel.

Beste gauza bategaz konturatuta nengoan. Probintzialak bere errialdean eukazan etxetarako nai izaten zitula gizonik egoki eta aurreratuenak, eta geienetan Mixioetara joaten lagaten eutsenak ez ziralá izaten ain bearrezko ziran gazteak. Orrela, gure Erretoreak ain trebe ez ziran mutillakin baliatu bear izaten eban. Eta oneikin ezin miraririk egin.

Aita Juan Jose'k ez eukan poz andirik bere artean Aita Segundo eta ni lako mutillen ikasi eta gertapenekin. Baiña, euskal zarrak esaten eben lez, dagonian dagonagaz kontenta adi.

Dana dala, gu Puthempally'ko Erretorearen aginduetara menperatu giñan.

Examiñak amaitu, abadegintza artu, eta bearrezko paperak batu eta gertaerak egin ondoren, 1928'ko Irailla'ren 14'an urten giñan Bilbo'tik Marsella'ra. Ain zuzen be egun onetan sartzen ziran legeko lez Araudi edo Konstitusiño barriak karmeldarren artean.

Irailla'ren 21 zan, Marsella'n, Messageries Maritimes'ko "Paul Le Kat" itxasontzian, atako bandan asi giñala, India'rako bidean, Kolombo'tik zear.

Aita Juan Jose'ren ardurapean, konbentu bateko bizitza eroan gendun itxasontzian be. Danetarako denpora egoan : irakurri, idatzi, otoi egin eta gure arteko jardunetarako.

Aita Juan Jose'k, gure nausi eta aolkari lez, berbaldi luzeak emoten euskuzan, batez be 1905 urtetik India'n bizikeran an artuta eukan experientziz baliatuta. Urte aretatik, ain zuzen, Ernakulam'go konbentuko nausi zan.

Orduntxe jakin gendun India'n euki eban lenengo izentatzé ta ardura, bizibide oia eroaten zan kombentu bateko Nausi izan zala. Gogoz ekin eutsan an ingelesa eta malayalam izkuntzak ikasten. Urten biren buruan ia jatortasun betez itz egiten eban izkuntza bi onetan, nai ta bitsuak gaitz samarrak izan. Eta laster asi zan euretan jardun eta ango monja eta erritarrei sermoiak egiten.

Zeregin ori Ernakulam'en beteten egoala, Erroma'tik izentapen barri bat artu eban: Kilon'go Gotzaintzako Bikario nausi. Suizar karmeldar bat, Benzinger agutgarria zan bertako gotzain. Berak eukazan agintzeko modu jator eta berezia, laster erakutsiko zitun Aita Juan Jose'k aginpide barri onetan.

Ez zan luzaro egon Kilon'en. Benzinger gotzaiñaren naigabe eta miñez, Aita Juan Jose'k Puthempally'ko seminariora joateko agindua artu eban. Ain zuzen bere anai Ezekiel'ek (Jesus'en Biotzeko Aita Ezekiel), Ordenako General zala, Nabarra'ko San Joakin karmeldar fraillien errialde edo probintziari emon eutsan Seminario ori.

1912 urtean joan zan ara, eta ordurarte erretore zan Aita Bonifazio'ri jarraitu eutsan. Orrela Babiera'ko Probintziko Ratisbona'ko fraillien orde zartu ziran an gureak. Areik 1880 urtetik egozan bertan.

Orrelakoxe jakingarriak artu eta entzun genduzan gure itxas ibilleran Baiña Aita Juan Jose'k barruko kezka bi agertu euskuzan: Puthempally'ko Seminarioa artez eroaten gure probintziak buruauste asko euki bear zitula, eta gauzak ondo urten ezik bertako abadiegi laga bearko zala Seminario ori.

Ez ain zuzen be ondasunik ez egoalako lan andi eta oparotsu bat egiteko. Ori premiñetako bat zan, mixioetan dirua gizonen lanaren pareko gertaten dalako.

Pozik esan euskun, Seminarioak Eleizako Zabalkunde Elkartek oiñarriztat emondako dirutza pixkat lendik ba eukan be, Aosta'ko Andre batek, eriotz aurretxoan, bere autorle zan kanonigo bateri diru mordoxka bat laga eutsala, eginbear on eta mixiotarako.

Gertaera izan zan. Cosme izeneko kanonigo a Erroma'ra eldu zan, eta ain zuzen be Zabalkunderako Idazkaritzan Aita Juan Jose Seminariorako bear zan oiñarriaren billa ebillala. Teresetxu deunaren

auri ongarria lez izan zan laguntza ori. Ain zuzen Teresetxuri bitar-tekotasuna eskatua eukan bere zeregin onetarako.

Aosta'ko kanonigoak dirutza ori Lepicier kardenal agurgarriari eskiñi eutsan. Onek gure Seminarioa ezagutu eban 1924 urtean bere ikustaldi baten. Eta dirutza orren premiarik andiena berak maite eban Puthempally'ko Seminarioan egoala pentsatu eban.

Kardenal onek Pio XI Aita Santuari eskatu eutsan bere iritzia. Arek ontzar artu eta Aita Juan Jose'ri agindu eutsan. Ain zuzen be egun orreitan Aita Santu arek Aita Juan Jose'ri eskiñi eutsan alkar ikustean, berberak aurreratu nai izan eutsan barri ori.

Aita Juan Jose, berez, makur samarra zan, eta Puthempally'tik barri illunak zabaltzen ba ziran be, eskintza orrek asko poztu eban, danetan eta batez be mixiotan, dirua zaldun altsua dalako.

1928'ko Urria'ren 11'n eldu giñan gure Seminarioko atetara. Poz eta atsegiñez artu ginduezan. Su-ziri, musika, txalo eta abar. Aita fraileak eta abade gaiak, danak agertu eben euren poza maite eben Aita Juan Jose erretorea euren artera biurtu zalako.

Gure aldetik be poz andia artu gendun gure Errialde edo Pro-bintzikiko fraile guztiak adiskidetasunean gengo zalako.

Garai aretan irakasle lez agertzen giñan karmeldarren zerrenda au da :

Aita Juan Jose Bilbao, Erretorea. Etxano'koa. Bizkaitarra.

Aita Aureliano Landeta, Erretore-ordekua, Arrigorriaga'koa. Bizkaitarra.

Aita Karmelo Manzisidor, Lemona'koa. Bizkaitarra.

Aita Faustino, Burgostarra.

Aita Eliodoro Imizkoiz, diru arduraduna, Iruña'koa.

Aita Juan Krisostomo, Zeanuri'koa. Bizkaitarra.

Aita Ildefonso, Corella'koa. Naparra.

Aita Emilio Armentia, Gasteiz'koa.

Aita Bitor San Migel, Lekeitio'koa. Bizkaitarra.

Aita Segundo Uriguen, Etxeno'koa. Bizkaitarra.

Anai Estanislao Garetxana, ikaslea, Murelaga'koa. Bizkaitarra.

Puthempally'ren jatorrasuna

Aita irakasleekin jardun ondoren, Erretore jaunak eztabaida batzuei asiera emon eutsan, Seminarioaren lengoa kontuan euki ta aurrerako jokabidearen arduretan.

Mixiotako edozein Seminariok gain gaitetik kontuan euki bear dau erriko giroari zelan eutsi, bereziki Eleiza eta eleiz gizonen premiñetan.

Oraingo Always'e ko Seminarioaren asiera, portugaldarrak Malabar'en euen indarra galtzen asi ziranean billatu bear da, portugaldarrak atzeraka eta olandarrak indar barritzen ari ziran denporetan.

Alexander VI Aita Santuak Malabar'era bialdu zitun lenengo karmeldarrak, Verapoly'n asi ziran Seminario txiki bat jasoten. Gogoen euki Ebanjelioko azia. Azi aren antzera zabaldu ta indartzen joango zan Seminario au; azkenean, adarrez betetako zugatz andi baten antzera Indostan azpiko lurralde guztiari bere keriza emonaz.

Lenengo urtetan ez zan igarten bere indartzerik. Alaxe eun eta larogei urtetan. Baiña gero ixil-ixillean gorakadan dua, oraindik indarraldi andiago egongo daben itzaropenez.

Zoritzarrez abadeen eziketa, Malabar'en, bana-banaka ari diran gizonen kontura egiten zana zan. Liturgia eta Kristoren dotriña erakutsiz, siriatar erako abade izateko.

Bear bearrezko gertaera barrik abade egiten ziran. Origaitik gero ta premiñatsuago ikusten zan seminario nausi baten sortzea, abade jator eta ikasiak bertatik atara al izateko, Eleizaren eskabidien araberran. Orretarako, 1866 urtean, Seminario barri bat zabaldu zan Puthempally'n, aurreragoko Verapoly'kua bertan sartuz, edo alkartuz. Sasoï aretarako, gertaera on eta jatorreko seminarioa moldatu zan.

Urte batzuk geroago, 1898 urtean, Puthempally'ko Seminarioa Malabar errialde guztirako Seminario nausi lez eratu zan, Fedearen Zabalkunderako Elkartearen lege eta ardurapean.

Orduntxe eskiñi zan bere zuzendaritza Babiera errialdeko Ratisbona'ko fraile karmeldarrei.

Aita Juan Jose Erretore

Alemaniar karmeldarrak 1912 urterarte jarraitu eutsen erakusten. Jator eta lotsaz egin be. Urte aretan Ordenako Nagusiak Nabarra'ko San Joakin Errialdeari eskini eutsen Seminarioko zuzendari-tza, Aita Juan Jose Erretore izendatuz batera.

Zuzendari aldatze onek atsekabe eta sailtasunak batu zitun. Baiña Aita Juan Jose gizon zur eta azkarra zalako, era-eratsu arindu zitun sailtasunak, gogorkerira jo barik.

Ikasleak ugaritzen igarri ziran, eta 1924 urtean, berreundik gora batzen ziran. Bear ba da munduko mixiolarien beste seminariotan baiño geiago.

Jarraiko urtetan Malabar erritarren arteko katolikotasuna ugaritzenigarri zan. Era berean abadetzarako deiak. Orrela Puthempally'ko Seminario au txiki geratzen zan eta agertzen ziran ikasle nai-koentzat estuegi.

Orrez gaiñera kontuan eukiteko da Erroma'tik etorten asiak zirala Malabar'eko siriari erako abade gazteak, ango ikastetxe nagusietako irakaskintzak artuta.

Era berean akademi mailletan irakaskintzak sakondutako abadeak be geitzen etozan, eta obispaduetako seminarioetan irakaskintzak emoteko gai egiten ziran.

Bestalde, Puthempally'ko Seminarioak, karmeldarren oitura ixil eta umillak jarraituz, ez eukan goi-maillako deitura edo titulodun irakaslerik.

Onk Malabar'eko gotzaintzan (obispadutzan) egoera larri bat sortu erazten eban. Origaitik Trichur eta Ernakulam'go gotzaiñak seminario nausiak zabaldu zituen 1926 eta 1927 urtetan, ortarako gai ziran irakasle goi-gorenak batuta.

Onk Puthempally'ko seminarioa danen arteko andien lez agertzen jarraitzekotan, egoera larri bat sortzen eban, batez be Erroma'k eta karmeldarren nausiak ortaz eukezan asmoak beteten ba ziran.

Beti be Gotzain bakoitzak, kanon-legeen arabera, euren Se-

minario nausiak eratzeko eskubidea dabela kontuan euki bearreko da.

Aita Juan Jose'k argi ikusten eban ori, eta naigabez beteta, orrela jarraitzekotan danentzako Seminario nausiaren asmoa bertan bera etorralako, eta onekin batean Malabar'en karmeldarrak artu eben zeregiña ezereztuten zalako. Eritzi onetako ziran beste irakasleak be.

Ba egoan urteera bat eta laster ikusten zan bera: Seminarioa anditu, Puthempally'ren eziña gainduteko, eta bide batez titulodun eta gaitutako irakasleei sarrera geiago emon, Erroma'n eta Malabar'en igarten ziran gurariak beteten alegin egiñaz.

Era onetan, premiña biak kontuan eukita, Aita Juan Jose, bere irakaslien on iritziz eta aupadaz, Erroma'ra joan zan 1927 urteko Otsailla'n, an alegiñak egin, ango borondatea ikusi, egin al eikeana neurtu eta irakasle egokiagoak bizatzeko asmotan, orrela bertako gozaiñen eskabideak onartu eta betez.

Esana dogu, Aita Erretorea, Erroma'tik etorrira, lenengo batzarran bertan asi zala ze komeni ete zan erabagi nairik: edo Seminario zarra luzatu zerbait erabarrituta giroak eskatzen eban lez, edo barri bat egin ortarako toki egoki eta eroso baten.

Barri bat egitea zala ongarriena, erabagi eben dan danak ao batez.

Itzaldi gogoragarri bat

Komeni zan asmo oneik gotzaiñei, abadeei eta abade ikasleei agertu eta jakin eraztea.

Orretarako Aita Juan Jose'k Seminarioan bere egunean egiten zan batzarra aukeratu eban. San Estabantxe eguna zan, Gabon-illaren 26'an.

Izlari jatorra zan Aita Juan Jose. Erri guztian ondo ikusia. Eta egun onetan bere patortasun orregaz baliatu zan, Malabar lurraldeko era guztitako abadiantzako Karmeldarren Ordenak pentsatu eban Seminario barriaren asmo nausia gain gainetik agertzeko.

Laster zabaldu zan asmo ori eta barri orrek arrada sortu eta erantzun on bat billatu eban Malabar errialdeko abade artean.

Alwaye'ko Seminarioa

Urte barriagaz batera, 1929 urtea asi orduko, gogoz asi zan Seminario barriarentzako toki egoki eta eratsu bat billatzen.

Goi aldeko toki bat aukeratu nai zan, osasuntsua, urez ugari eta bearrezko diran atsedean aldietarako leku zabalduna.

Illak igaro ziran orrelako toki bat billatu eta ezin aukeratuta. Eta bat batez, Jose Benito Ribeiro, Cochingo portugaldar gotzaiñari egindako ikustaldi baten, Alwaye'n eukan leku zabal bat izentatu eban berak. Leku ori esku zabalez lagateko gertu egoan, astuntasun eta neke andi bako baldintza edo kondisiñoetan.

20 Hektarea eukazan lekuak, toki aizetsua, Periyat ibaiaren ertzean, Malabartarrentzat ibai sakratu edo donea zan.

Danen eritiziz Seminario bat bertan jasoteko toki berezia zan.

Errialde aretako arkitekto bategaz konpondu zan Aita Juan Jose eta denporarik galdu barik agertu zitun etxe eder arentzako planu nau-siak.

Ez zan Seminarioa urte batzutarako edo denporaldi labur bate-rako egingo, gizaldietarako baiño, Malabar errialdeko eleizaren gogoa zan lez.

Granitozko arri landuz jasotzea pentsatu zan eta laster ikusi zan era orretako lenengo etxea a zala inguru aretan.

Etxe barriaren lenengo arria, Eleiz Ordezkarri lez, Edward Mooney monseñorak bedeinkatu eban 1930 urteko Otsailla'n.

Goratzea arin egin zan, Aita Erretorea begirale zala; irakasleak be atsegifiaz laguntzen eutsen orretan. Eta abadeki askok urduri ikus-ten eben ekintza ori, eurean gertabideko denpora larriak gaifian zituelá igarten ebelako.

1932'ko Bagillarako etxadiko zati eder bat, teologoentzako al-derdia, amaituta geratu zan.

1932'ko Bagilla'ren 1'an egin zan bedeinkatze ospetsua. Egun gogoragarria, bertatik asten zalako gero Ebangelio bidean jardun bear eben abadegintzako ikastaruak sakonago erabiltzeko bizi barria.

Poz eta ametsez betetan igarten ziran irakasle, abadegai eta laguntzalleak.

Ebangelioaren kutsuz beteta ezagutzen ziran danak, konturatzen ziralako Mixio arduretako asmo andi bat beteten zala.

Ori ikusita, Tritxur eta Ernakulam'go seminario nausia sarratu ziran eta euretako ikasleak Always'ra bialdu.

Always'ko Seminarioa, lenengotatik, Filosofi eta Teoloji'ko ia 300 abadegairekin asi zan. Mixio errialdetako seminariorik andiena zan.

Bertako zaindari zan Joseba deunaren laguntzaz, eta Aita Juan Jose'ren zuzendaritzapean. Eurei esker Seminario au istoriko bide zabal eta andietan sartu zan. Aita Juan Jose gero ta entzute andiago artzen eioan inguru eta bizi bide orretako arduradunen artean. Bai eta bere laguntzaille jator ziran Aureliano, Zakarias, Heliodoro eta beste Aita agurgarriak.

Seminarioaren indartzea

Always'ko Seminarioa, Puthempally'n sustraitutako arbola baten antzera ikusi lei. Gero Always'ra aldatzean, bere sustrairik onenak sakondu eta adarrak zabaldu, Malabar eta inguruak bere kerizpean artuz.

Seminario bateko bizitzako zati eta erabide guztiak bereziki aztertu ziran. Ala gogo, pastoral, mixio, jakintza eta abar, aldizkari barriak atara eta argitaratzen zirala eta barruko ekintzetarako elkarte barriak sortu.

Gaztetasan indartsu eta alai bat igarten zan eguneroko bizitzan, eta etxean edo kaleko kantu eta poz agerpidekin erakusten gendun ori.

"Jaunak bialdutako gizona zan, Juan izenduna"

Benetako maitasun eta lotsa gordeten dautsadaz Aita Juan Jose'ri. Berak eroan nindun India'ra. Nire aldetik, nigan ipini eban konfian-

tza indartu eta zindotzen lagundu neutsan. Konturatu nitzan ez nengoala ain egoki gertuta, seminarioak eskatzen zitun lan astun eta premiñatsuetarako. Baiña egi bat autortu bear dot: Aita Juan Jose'k burubide zabalez jokatu eban eta ba ekian soka bear aiña luzatzen.

Eldu eta illabete batzutara, Seminarioko karmeldarren ondasun arduradun edo prokuradore autu nindun, eta zeregin onetan ez eban berak ostoporik ipinten; bakoitzaren jokabidea libre lagaten eban. Nik ez neukan akademi gradurik, ez eta ikasirik be gai batzuk egokitasunez erabilteko. Origaitik Filosofi Zilleizti (Moral) eko irakasle izentatu nindun, nire egokitasuna or izango nebalakuan. Bear ba da berak sartu nindun niretzat bide barriak izango ziran bide egokian.

Seminarioan neroan lenengo urtean, irakaslien batzar baten, musika talde bat eratzea komeniko zala atara gendun. Ba egozan irakaslien artean musika zaleak, baiña Aita Jun Jose'k eskatu eustan Frantzia'tik ekarriko ziran soñulariak joten jakingo ebenekin talde bat osotzeko, eta ba ekian lez nik ba nekiala orrelako ereskin bat joten, ni izentatu nindun talde orren buru egin eta bera osotzeko.

Teresetxu donearen musika taldea deitzen geuntsan oneri. Amabost urtetan beintzat berak alaitzen zitun Seminarioko jaiak.

Aita Juan Jose premiñarik txikienagaz be arduratzen zan.

Aldi aretan Aita Heliodoro ondasun arduradunaren laguntzaille be izentatu nindun. Gero ta ardura geiago eskatzen eban Seminarioko Banakaritza edo kontularitzak eta A. Heliodoro eta nire artean banatu gendun ardura ori. Nik kanpoko gauzen ardura neukan: kontratuak, erosketak, lanak eta abar. Orrela gero ta pozago nengoan, bizi bide eta ardura ori atsegin yatazalako. Beti esaten neban nire artean, orrelako nausiekin pozez eta eratsu lan egin eikeala. Nik euren guraria bete bearrean, eurak zirala esan eikean nire gogoia beteten ebiltzanak. Orrek be, santa Teresa'ren esanetan, ba ditu bere arriskuak.

1935-1940 bitartean Seminarioko bizitza eratsu eta egoki erabilten gendun; baiña 1941'n zoritxar bat ezagutu gendun: Aita Heliodoro, prokuradore nausiaren eriotza.

India'n igarotako 38 urtetako naigaberik zorrotzena artu neban. Niretzat shock sakona izan zan eriotza ori, berarekin poz pozik ne-billelako gure lanean.

Orren ondoren, Aita Juan Jose'k nire lepora ezarri eustan Seminarioko kontu guztien ardura. Eskerrak Aita Erretore berberak, Aita Aureliano'k eta beste irakasleak laguntza eskintzen eustela; eurei esker nire lana bete al izan neban.

Ordurako Aita Juan Jose'k bere jakinduri eta serbitsurik onenak emonda eukazan, eta egunetik egunera makaltzen eioala igarten zan. Egia esateko, Aita Aureliano zan ia bere zeregin guztia beteten ebana, Seminarioko zuzendaritzan.

Alaz eta be Aita Juan Jose'k bere itzaldi eta aolku on eta sensudunekin, asko laguntzen eban gauzak zuzen eroaten.


1944 urtean, Aita Santuaren Ordezkariak ontzat artu eban Aita Juan Jose'ren zeregin ustea, eta Aita Aureliano izentatu eban bere ordezko.

Urte bete geroago il zan Aita Juan Jose, aintza eta merituz beteta.

Bere eriotzak min andia zabaldu eban ezagutu eben guztien artean eta beragaz lan egin gendunon artean, batez be fraile eta abadekien artean.

Niretzat zeruko esker eta mesedea izan zan ain Erretore on eta nortasun andikoagaz lan egitea.

Aita Juan Jose ez zan nekatuten abadekiei Leon XIII Aita Santuaren esaera gogoratzen: Zure semeak izango dira, India, zure gaizkapenera, zure salbasiañora eroango zaituenak.



Aitá Aureliano Landeta

1887 - 1963

Mixiolarien artean, mixiolarien munduan, Aita Aureliano gain gaineko mixiolaria da, santutasun doaiez betea.

Bere santutasun ezaupidea Erroma'n sartu ta ikasten asia dan lez, lotsa eta dedu bereziz aitatu bear dot.

Gauza bat da asierako jakingarri: India'ra eldu zanetik, bere 52 urte mixiolari eginda be, ez ebalala lur aretatik urten.

Beragaitik esaten da, eskintza berezi bat egin ebala geiago España aldera ez etorteko. Baiña nire ustetan, ez eban etorri nai izan, ikertaldi orren premiñarik ikusten ez ebalako.

Bere espitiruzko bizitza, bere gogo ardura, ez zan ots andikoa, apal eta ixilla baiño, eta orrelako erabagi bat erraz artu eikcan ardura andi barik.

Iru-lau bidar eskatu yakon India'tik urtetea onartzeko, aitzakiren bat artuta, baiña eskabide ori bastertu egiten eban.

Ni-neuk be eskatu neutsan oportaldi zatzuk artzera bere aberri urreratzeko, baiña erantzun au artu neban: Europa'ra joatera beartuten ba eben Reigada'ko Lekaro etxean sartuko zala, bere azken egunak ixilik eta bakartadean igarotera.

1923 urtean gure Ordenak Erroma'n eukan laterri-arteko Ikastetxe baten zuzendaritza eskifñi eutsen. Sasoi aretan Puthempally'ko erretore zan Juan Jose Aitari ez yakon ondo iruditu eskintza ori, esanez ez Aureliano berberarentzat eta ez Ikastetxearentzat, ez zala egoki izango aukeratze ori.

Nik be pentsatu neban Aita Aureliano ez egoala oraindik onelako zeregin bat artzeko gertu, batez ere artu-emon zabal batzuen makurpena eskatzen ebalako.

Aita Aureliano berretarra zan, zorrotza, nai ta abade izateko gertuten egon gazteen Ikastetxe batek eskatzen daben zuzendaritzarako estuegia.

Izakera, karakter gogor gogorra eukan, nai eta bere santutasunez errez eratzekoa eta bizitasun amaibako baten jaube zan.

Seminariora eldu eta gazteen begirale ta maixu izentatu ebenian, mutillekin asarre uneak euki zitun, batez be zorrozkeria tajutzen ez ekialako eta ezaupide eta experientzi eza igarten yakozalako.

Aita Juan Jose'k eukan bizibidearen ezaupideari esker, bere inguruan eta bere aolkuekin eratzen joan zan, gero "fortiter" eta "suaviter" erabideak komeni lez erabili eta jokutzen ikasiz.

India'ra joan baiño len ezagutu neban Aita Aureliano, guk Be-goña'n erabilten gendun "Cursus Asceticus et Mysticus" bere liburua-ren bitartez. Karmeldarren santutasun eta aszeta erako bizimodua bere zaletasunik andienetakoa izan zan. Mistika gai edo gogo bizitza eta beste berezietan ez zan ain bete ta pozik aurkitzen. Ezpai barik, duda barik, naiago eban aszetika bidetatik ibili.

Seminariora eldu nitzanean ikusi neban lenen aldiz Aita Aureliano. Beragaz berba egitean beste irakasleak ez eben bere izenik aita-tzen. Bere erriaren izenez deituten eutsen: Arrigorriaga. Geroago deitura ori bertan bera galtzen igarri neban.

Puthempally'n bere gelaren ondoan neukan nire lo-gela.

Izkuntzak eta indiar kultura ikasten aspertzen nitzanean, bere gelara joaten nitzan, eta beti billatzen neban bertan lanean gogotsu. Garai aretan "Eukaristi Liga" aldizkariaren banaketa zuzentzen ebi-llan. Zuregin ori emon eutsen alemaniar azken fraileak Seminariotik urten ebenean.

Gogorra zan, burdiñaz egiña lakoa. Erabide zuzena eukan bere bizitzan. Iru-lau illabetetan aldizkari orren gorabera ondo eratuta la-ga eban.

Garai aretan, lanean ifiarduan artean, zigarro puro edo txokor bat erreteko oitura eukan. Ez dot uste oitura ori gogoz artu ebanik. Ez eban sarri erabilten. Mixio tokietatik kanpora karmeldarrak ez eben erreten. Gure errialdean nengoala, gure Probintzian, ifior be ez neban ezagutu erreten.

Nire iritzian Mixio tokietan erreten asi ba ziran, garbitasuna-gaitik asi ziran.

Giro aretan, zigarro erreteak mikrobio batzutatik azkatu eragi-ten eban ustea egoan, batez be gaixo edo zikin bizi ziranak ikustera joan bearra egoten zanetan.

Ezin lei ukatu mixiolari agurgarri eta zorrotz areak, euren ze-

regiñean eredu lez izan da be, zigarro txikien ordez zigarro puroak erreten zituenik.

Biaztun edo bilisaren aurkako ona zala, esaten zan, erretea. Eta jakíña da, bero tokietan, batez be asieran, biaztunak asko neketuten dabela.

Naparreri baltza

1929 urteko Apirillean, Seminarioa eldu ta laster, urtako ikastaroak amaitzen egozala, udako oporrak asteko, Aita Aureliano makal geratu zan, sukar andiekin, eta gorputz guztia puzpuloz beteta.

Ernakulam'era eroan eben, ainbat lasterren, gure itxasontzian, angosagilleak ikustera. Arain esana laster jakin zan: naparreri baltza batu ebala.

Garai aretan, gaixo au, lautik irutan, ilkorra izaten zan. Gaíñeira erraz zabaltzen dan gaixoa izanik, banatu, alderatu egin bear zan.

Ernakulam'go konbentuko ortuan txabola bat gertu eben eta Aita Aureliano'k antxe igaro eban, eroapen sendoz, bere gaixoaldia.

Gogoan daukat gaixo aldiaren egunik larrienetara eldu zanean, gu santuen arrenak otoiztuten gengozala. Osagillea etorri zan jakin eraziten gaixoa baretzen asi zala eta arriskutik urten ebala. Ori entzun eta bereala Te Deum abestu gendun.

Gaixo orretatik urten eta Puthempally'ra etxeko talopan etorri zan. Opor egunak ziran eta iru Aita gengozan bakarrik etxean. Atera urten giñan irurok. Bera makillatxo bategaz lagunduta agertu zan: Ongi etorria agertu orduko, berak esan eban: "Jaungoikoak nai izan dau oraingoz orretara gertatzea".

Aste batzuk igaro ziran gogortu orduko, lengora etorri orduko. Baiña laster asi zan lanean, bere argitaratze lanetan eta gogo zuzendaritzan.

Gaixo orretatik garbiago urten ebala irudian, santuago.

Nik beintzat esan nei arrezkero ez neutsala geiago zigarrorik ikusi bere gelan.

Gaizoaldia igarota gero, len baiño lagunkorrago ezagutu gendun eta bigunago.

Apostolu asper ezina

Erretoretzat autu arte, au da, 1930'tik 1944 bitartean, Erretore ordeko lez egon zan. Denporaldi orretan Aita Juan Jose'ren esku on lez ezagutu gendun, erakunde, zuzendaritza, arau-maitasun eta abarretan.

1937'n, Eukaristi Batasuneko zuzendari zala, India guztiko Eukaristi Bazar bat eratu eban Madras urian.

Bazar oneri gogo bizitza jator bat irarri eutsa, espiritu bizitza sakona, eta bere ondorenak mesedegarri izan ziran errialde aretako kristauen artean.

Bazar onetan garbi ikusi zan bere gogo-nortasuna, bai eta bere apaltasun txalogarria be.

"Mirror of Priests" (Abadien izpillua) izenez liburu eder bat idatzi eban aldi aretan. Pitxi bat. India'n, Amerika'ko Laterri Batuetan, eta ingles izketa erabillen errialde guztietan arrera on-ona euki eban. Abadeen gogo (espiritu) bizitzarako gertapenetan iturri eder eta ugaria izan zan liburu au.

Aita Aureliano, bere izatean nortasun osoz ezagutzen zan, abadegai edo bestelako lagunuen artean berbetan jarri eta espiritu erakundeetan aitatzen ebanean.

Alkarregaz bizi ginalako bere lan guztien ezaupide zeatza artzen neban. Bear neban guztietan laguntzen eustan berak. Askotan geiegi. Karmeldar fraile eredu zan, abadegaien eziketako lan neketsu eta gaitza bere arduretan artua. Era berean kanpoko apostoladutza be.

On ona zan danekin, daneri entzun eta danekin itz egiteko gertu. Ori bai, alkar-maitasunean ikutu ta zirikatu edo mindu barik.

Bizkai aldean banatuta eukazan bere senideak. Arrigorriaga, Basauri, Barakaldo, Ondarreta eta abarretan banatuta. Euren kartetatik igarten zan lez, danak abertzale ziran, nai ta Aita Aureliano'k politika gairik aitatu nai ez bere jokabidean.

Euskera askorik ez eban erabili. Ba eukazan lagunak, Ordena barruan euskera zaletasuna ez etorralla ondo Ordenako espiritu eta asmoen barruan, pentsaten ebenak.

Baiña maitekiro erantzuten ekian senideen kartei, bete bearreko edozein bear lez.

Bere lengusu baten karta bat erakutsi eustan bein. Franco'ren politika ukatzen etorran, bertan bera jaurtiten. Esan be bai, Franco'ren politikak logikarik ba eukan, tximista bat jausi bear zala bera eteten.

Umoretsu erantzuten eban, alai zalako. Alaz eta, bere bizitzako azken denporetan asko ikusi ebalako, gatz asko galdu eban. Bere ezaupidea goragotik etorkion: Jainkoagan eukan itxaropenetik.

Erretore

1944 urtean Aita Juan Jose'k erretoretza laga ebanean, Eleiz Ordezkarri zan Leo Kierkels monseñorak Aita Aureliano izentatu eban Erretore.

Izentapen onek gure arteko artu emonak sendotu zitun, orregaz batera ardura geiago lepoan ezagutuz.

Aita Juan Jose'gaz aita-seme lez ezagutu ba giñan, Aita Aureliano'gaz anai arteko artu-emonak berotu genduzan; anai txikiak anai andiagaz eukiten ditun artu emonak.

Amabi urtetan eskutu aiñako konfiantza laga eban nigaz, eta gauza askoren eragabia nire gain lagaten eban, batzutan garrantzidun arazoak izan da be. Aita Aureliano'gaz Jaunak esana beteten zan: Bere buztarria biguna zala eta alorra (karga) ariña.

Alkar laguntza

Aita Aureliano'gaz benetako alkar laguntzan gertaten nitzan sarri. Ala Kristau Gizarte jakintzan, Eleizako arazoetan eta Karmel-giri'n.

Kristau Gizarte jakintza

Kristau gizartiztia amalau urtetan gure abadekiei erakutsi on-

doren, gai ortazko utsunea betetako, ortazko textutzarako liburu bat idaztea pentsatu neban, premiñarik andienak beteteko, batez be India'ko gizarte biziari buruzko gaiak azalduz.

Liburua argitaratu zan, baiña esan nei Aita Aureliano'ren laguntza barik ez zala agertuko. Berak lagundu eustan danean: irarkolarako lanak gertuten, lenengo ataraldiak zuzentzen eta abarretan. Batzutan pentsatu be egin neban nik baiño ardura geiago eukala berak liburu ori atarateko. "Christian Sociology" nire liburu ori India'ko seminariorik geien-etan textutzat erabili eben.

Gizarte gaietako irakasle izateak beste ondorenak eukazan. Kerala eta India'ko toki askotan itzaldiak emon bear izaten nitun langilleen zuzendariak gertuteko edo ta ikaslien batzarretan erakusteko. Lan onek, Seminariorik urten eta askotan gau erdia igaro baiño len ez biurtzera beartuten nindun. Nai ta dana Erretorearen baimen osoz egin, nik eskartu barik ezin laga ainbeste kanpo-lanak egiteko baimen emotea. Ez dira sarri billatzen orrelako nausiak.

Seminarioko eleiza

Aita Juan Jose'ren erretoretzako azken urtetan osotu zan Alwaye'ko Seminario ederraren egitura.

Baiña oraindik bosteun lagun inguruntzako eleiza bear zan, ordurako ainbeste abadegai batzen ziralako bertan.

Bein etorri yatan Aita Aureliano eleiza ori egiteko dirurik ba ete neukan itanduten. Eleiz gauza andikiro erabiltea nai izaten eban Seminarioko bizitzan, eta origaitik Eleiza eder eta txukuna egitea nai eban.

Nik erantzun neutsan ain txalogarri zan asmo baterako ba gendula bear zan dirua.

Arkitekto bateri deitu geuntsan, gotiko erako eleiz jator bat asmatzeko. Laster asi ziran lanak. Urte bi geroago, au da, 1951 urterako, eleiza amaituta egoan, dana arlanduzko arriz.

Lauren lagun ibili ziran bertan lanean.

Aita Aureliano'k barruko eratasunaren ardura euki nai izan eban, abadegaien espiritutako ondo etorriko zan barru erakundea egiñaz.

Mario Barberis, italiar ertilariak margotu eban Azken Aparia. Bai eta abadegintzako maillak agertzen dituen ikusgarriak.

Londres'ko etxe batek gertu zitun leiar margotuak. Eurretan Kurutzeko Jon deuna, Terese deuna, Bai eta Dogma, Teologi eta Oituzko Teologiko maixu ziran Akino'ko Tomas eta Ligorio'ko Alfontso Mari deunak. Eta Misioetako zaindari dan Ume Jesus'en Teresetxu.

Leiar guztiak on onak ziran, Londres'eko Goddad and Gibbs etxeko ertilariak irudituak. Etxe orretan egiña ziran Inghlaterra'ko Legedi etxeoak eta Cantorbery'ko anglikanoen katedralekoak be.

Aldaretako irudiak Aita Aureliano berberak aukeratu zitun, abadegintzan egokien datozenak kontuan eukita.

Marmol arrizko apaindura Umberto Bruni elkarteak egin eban Erroma'n.

Genduzan ondasunik geienak Malabar errialdeko abade ta abadegaien otoitz-leku izango zan etxe andi eta jator a egiten eralgi genduzan.

Eleiza, ospetasun andiz, Leo Kierkels Monseñorak bedeinkatu eban, Eleiz Ordezkarri lez. Ikusi ala, Indiarako pitxi edertzat lez goratu eben bertako egunkariak.

Aita Aureliano'k ostoporik ez eban ipinten eleiza ori beteteko bear ziran lanak egiten.

Igarten zan Terese deunaren Osotasunerako Bidean baiño Aki-no'ko Tomas deunaren "Summa Theologica"n geiago oiñarritzen zala, etxe aretan bizi dan Jaunaren anditasunari omen egin nairik.

Alaz eta beti egoten da zerbait eta guk be euki gendun gure betozkoa agertzea, organoa bitarteko zala.

Nik organo bat ekarteko baimena eskatu neutsan, oia zan lez, Aita Aureliano'ri.

Txikago'n dagozan poloniar fraile bateri eskatu neutsan, Hammon organo etxe ospatsura joan eta gure Seminariorako andi bat egiteko eskabidea egiteko, gure eleiza eder aretako duin izan eikean.

Organo ori Alwaye'ra eldu eta Aita Aureliano'k ikusi ebanean, eskuak burura eroan eta esan eban: Baiña zer da au? Nik ez neban ain andi eta ain karurik amets egiten.

Egia esateko organo a, aldi aretan, India'n egozaten artean edere-
rrenetariko zan. Erretoreak, bere onespén egunean jotén entzun eba-
nean... besterik ezín egin baretu eta adiskidetu baiño.

Karmelgiri

Munduko bigarren gerra amaituta gero, abadetzarako deiak asko
ugaritu ziran.

Alwaye'n 420 ikasle ondo sartzen ziran, baiña 1955 urtean 480
lagun ebiltzan ikasten. Erroma'tik esaten ekien iñor ez lagateko artu
barik, egoerako tokirik ez egoalako.

Onek, Aita Aureliano eta Karmeldarren irakasle guztiok larri
lagaten genduzan.

Egoera orreri urteera bat emon bearra igarten gendun. Ainbat
arriñen. Ori izan zan ain zuzen Tisserant kardenalak Kerala'n egin
eban osteraren zegaitietako bat.

Kardenal arek ba erabillazan, bere pentsabidean, urteera batzuk.
Bear bada beste Seminario bat egitea izan eikean orrelako bat, eta
jesulagunei edo beste eleiz talderen bateri eskiñi bertako zuzenda-
ritza.

Kerala'ko gotzaiñen bateri edo geiagori entzun izan eutsen gaitz
izango ebela karmeldarrak, eurak bakarrik, Nabarra'ko san Joakin
taldearen bidez, euren gain Seminario barri bat egitea.

1954 urtearen asieran, Nabarra'ko San Joakin fraile talde one-
takuak batzar garrantzitsu bat euki gendun. Aita Aureliano, Aita
Zakarias eta ni batu giñan Tisserant kardenalagaz buruauste onetzaz
zerbait erabagiteko asmotan.

Ordenaren izenean Aita Aureliano'k kardenalari esan eutsan,
gure Ordenak asmo barri ori bere gain artu eikeala; komeni be ba
yakola bere gain artzea. Esan eta agindu yakon, gure Ordenak Al-
waye'tik laster eukan lurralde baten, etxe barri bat egin eikeala,
Filosofiko irureun ikaslentzat.

Kardenalak gure asmo guztiak onartu zitun, ezer kendu barik.
Nire ustetan, Kardenala Aita Aureliano'ren osotasun eta os-

peak mendetu eban; gure asmoa agertzeko berak erabili eban zeaztasun eta egiak.

Ba dago beste ikusbide bat: Ain zuzen guri, Always'ko ikasliei gogo jardunak emon euskuzan jesulagun baten iritzia, Tisserant kardenala Kerala'n egon zan egunetan.

Jesulagun ori Aita Francis zan. Oraindik gure aldeko gertaera bat: jesulagun ori Tisserant Kardenalaren errikidea zan, au da, bere erri berbertakua. Onek jator egin eutsan Always'ren alde. Bertan ezagutzen zan eleiz gogo eta mixio gogoaren alde. Kardenalak benetan artu zitun jesulagun onen esanak, berak gerotxoago agertu eban lez.

Asmo oneik beteteko etxe barriaren planak egin ziran. Eurekin joan nitzan Erroma'ra eta iru-lau bidar kardenal berberagaz egon nitzan. Berak ondo ikusi eban gerabillaguna.

Denporarik galdu barik, etxe barriko lanak asi ziran, Filosofiko Seminario barri au egiten. Karmelgiri (karmel-mendi) deituten geuntzan.

Uste baiño lenago; 1954'ko Maiatza'ren 2'an asi (Jose deunaren aitatasun egunean asi) eta urrengo urteko Kurutzeko Yon deunaren (aldi aretan Azilla'ren 24'an ospatuten zan jai au) bedeinkatu eta zabaldu al izan zan, ikastetxe barri ori dana amaituta.

Eleizako Ordezkarriak, bere zabalkundean egin eban itzaldian, garbi esan eban: Aita Karmeldarrak, etxe eder bi oneik zabaltzea baiño beste lanik egin ez ba eben be India'ko eleizaren alde, India'k ezin aaztu al izango zitula sekula.

Onetan, ixil, eskutuan, baiña beti gaiñean, Always'ko bizi guztari indarra emoten Aita Aureliano ezagutu gendun. Beragaz biziteko aukera euki izan dabenak ondo ezagutzen dau bere benetako apaltasun fedetsua, gazte gaztetatik erabillalako, berezko lez, igarri barik, apaltasun ori. Teresa deunak esaten eban lez, apaltasuna benetan ibiltea ba da, Aita Aureliano'k egitan beteten eban ori.

Ainbat urte beragaz bizi eta ibili ondoren, biotzez sinistuten dot apal-apala izan zala, nire ezaupidetan apalena.

Ospe, kargu eta deiturak ez eutsen ikuturik egiten.

Origaitik, ardura andiak euki eta apal izatea gaitz dalako, eta gizonen izatearen gaiñetik dagoena dalako, niretzat Aita Aureliano

bizitzan ezagutu neban gizonik andiena izan zan, ezagutu dodazan beste gizon andi asko be aintzat artuta. Bere apaltasuna arrigarria zan, ixil-ixilla zan batera.

Beste gauza asko esan eta gogoratu nekez Aita Aureliano'ri buruz. Baiña orreitzaz idatzi be asko egin da. Origaitik, ingelesetik euskeratuta, ni-neuk Erroma'ri egin neutsan eskabidea aitatuko dot, bere zoriondun izatea autortu ta Jaunaren Otsein lez ezagutzeko egin neban eskabidea.

"Aita guztiz santu :

Idazki au izenpetuten dabena, Bitor San Miguel monseñora, karmeldarren ordenakua, Kuwait'eko eleiz ordezkari nazan au, poz pozik makurtuko litzake Aita Santu orren oiñetan, nigaz lan egin eban Aita Aureliano, karmeldarraren zoriondun eta santu aukeratzeko auzia eskatzen, 1928 urtetik 1963 bitartean, il arte, alkarregaz lan egin gendulako India'n, Jose deunaren izeneko Seminarioan.

Aita Aureliano España'ko iparraldean jaio zan, Bizkai lurraldean, 1887 urtean, eta abadetza artu ondoren bere Nausiei India'ra joateko borondatea agertu ta eskatu eutsen, berak gaztetatik eukan Mixiotarako deiari erantzunez.

1912 urtean eldu zan India'ra, lenengoz Puthempally'ko Jose deunaren izenpean egoan Seminariora, eta gero Alwaye'ko Seminario barria egin zanean bertara. Antxe il zan, Alwaye'n, 1963 urtean.

Nire bizitza, Seminarioan, Aita Aurelianorekin batean igaro izan neban, nire lanak berenekin alkartuta egozalako Seminario are-tako erabide eta zuzendaritzan, 1928'n India'ra eldu eta 1963'en, santutasun ospe eta usaiñean il zan arte.

Nai ta zeregin ez-bardiñak euki, alkarregaz bizi izan giñan denporaldi guzti orretan.

Bera Arima zuzendari zan, irakasle, Erretore ordeko eta geroago Erretore, zeregin guztiak abadegaien gogo zuzendaritzagaz batera. Ni, orde, urte orreitan Seminario berbertako etxeko goraberakaz arduratuta nebillan, prokuradore nausi lez.

Origaitik esan neike, 37 urtetan, bata bestearen ondoren, Aita Aureliano'gaz bizi izan nitzala.

Aita Santu orreri.

Orain idazki au egiteko eskatu dauste, nire eritziak agertuz, Aita Aureliano'ren bizitza gogorattzen. Eta apaltasunez egiten dot.

Ogeita amazapi urte beragaz bizi ondoren garbi esan neike Kristo'ren gogoz beteta ezagutu nebala; abadekien espiritu-zuzendari lez, arduradun gogotsu; kermeldar lez araudien menpeko eta zintzo; eta arimen onerako bere bizia eskiñita eukan mixiolari betebeteko.

Nai ta berak esan ez, nire ustetan, bere sorterrira geiago ez biurtzeko eskintza (botoa) egiña eukan, orrela bere izate guztia mixioen alde eskiñiz, beste gauzak bide orretatik okertu ez egien; zan guztia eta egin eiketan guztia mixioetako arimen alde erabiliz. Eskintza onetan bere osasun eta izate indartsuak lagundu eutsan, orrela, abadekien eziketarik gaiñera, beste gogo lan askotan sartu eragiñez.

Sakramentu Guztiz Santuaren zale zan, bere oneraspenak orretan sututa eukala, bertatik arnasa ta indarra artuz, erabili zitun lanetarako.

Bere anai frailiekin edo beste eliztarrekin kezka, ardura eta jokabide oi-ezak zituanean, Sakramentu Santuaren aurrean orduak igaroten zitun, bere eritzia sendotu eta jokabidea artu aurrez, eta andik poz eta indartsu ataraten zan.

Eukaristi Batzarrak eratu zitun India'n, bere gogo eta lan guztia orretan ipiniz eta batez be bere otoitzak ortarako egin eta batuz, Kristo'ren aintzan.

Bere "Cursus Asceticus et Mysticus" en gain, "Mirror of Priests" liburu aintzagarrria idatzi eban, abadiantzat eta bereziki abadegaiantzat. Liburu orretan abaderaen santutasuna agertzen dau, benetako izpillu baten. "Eucharist and Priest" aldizkariaren zuzendari izan zan eta Gau gurtza'ren arduragaz batera, Eukaristiko Sakramentuaren oneraspena zabaltzen alegindu zan India'n.

Eguneroko Meza santua izan zan bere oneraspenik gogokoena, eta esan neike India'ko Eukaristiaren Apostolu deitu leikiola.

Beragaz lan egin neban bitarte guztian, bere gogo apaltasunez beterik Jaunaren aurrean egoala igarten neban egunaren ordu guztie-

tan. Eta gizon umoretsua izan ba zan be, bere Nausiak emon eutsezan zeregin guztien arduratan umore ori makaltzen ezagutu eban.

Zenbat eta berak zeregin batzuk alboratzeko gar geiago agertu, bere Nausiak ardua geiagotan sartzen eben. Baiña urteak aurrera eta zeregin geiago eukitean, bere gogoia garbitu egiten zan, eta gizon arteko argalkeriak alderatzen jakin eban, batez be Erretoretza laga ebanean.

Il zanean, Jose deunaren Seminarioak santu bat eukala zeruetan pentsatu neban. Nirekin batean bertako irakasle guztiak. Igarri neban santutasun ori onartzeko, Eleizaren baimena bear zala bakarrik. Origaitik, asmo ori bete naian, idazki au gogotsu izenpetzen dot, bere zorientasun eta Santutasun auzia ainbat lasterren sartu eta asi dedilla eskatzen, ortarako Eleizak daukazan arauak beteaz. Ortik gorago-koa Espiritu Santuaren gain geratu bedi.

Nire eritzia da Aita Aureliano'ren santutasun ezagutzeak, India'ko mixiolarien gogoia biztuko dabela, geienbat, eta bereziki Kerala'koena, eta zetan esan ez fraile eta erriarena.


Orrek asko goratuko leuke Mixiolarién eskintza eta euren lanaren osotasuna, eta gaurko denporetan abadien espiritu-zaletasunaren eta arduraren eredu izango litzake.

Aita Santu orren erastunari musu emonez,

bere Aitatasuna ezagutzen geratzen naiz,
Kristo'gan zure Seme

Bitor San Migel, monseñora,
Kuwait'eko Eleiz ordezkaria".

(5-XII-1977)



Aita Zakarias Salterain

1892 - 1957

Aita Zakarias'en izena "La Obra Máxima"ko antxifiako irakurlien artean ezaguna da, nai ta bere idazlanak ain sarri ta ugari agertu ez aldizkari orretan.

Baiña bere mixiolari lanak, 1924 urtetik aurrera, mixiotako aldizkari askotako orrialdetan agertu ziran, Aita Zakarias au gaurko denporetako mixiolari berezi bat izan zalako.

Abadiño'n jaio zan 1892 urtean. Gaste zala eldu zan India'ra. Nik, lenengo, Puthempally'ko Seminarioan ezagutu neban eta geroago Always'e'n, 1928 urtean asi eta 1957'n il zan arte.

Beragaz alkartasun osoan bizi izan nitzalako, bere bizitza guztia Jaunari eta Eleizari eskiñia egon zala esan nei, jakintzako era guztietan eta Seminarioak barru eta kanpo eskatzen eutsazan lanetan.

Aita Zakarias'ek amasei ordu egiten zitun lanean egunero. On-do dakidu eta origaitik esan giñei bere onduan bizi giñanok. Osasun oneko, lana pozgarri zan beretzat.

Apostolu aspergabea zan, munduan gitxi egon diranetako. Aita Zakarias'ek bere zeregiñean egiten zitun orduen kontua atara leikie gaurko makifia kontu ataratzailleak, baiña ez Jaunaren otseintzan gizon onen gogo eta gizon balioen konturik.

Gu, txiki eta pigmeok ez dakigulako orrelako meriturik aintzat artzen, gure Jaun danak, berak dakian lez eskartu al izango zitun Aita Zakarias'en lanok.

Bera il zanean Seminario'ko idazkariak au idatzi eban: "Mifiez beteta agertu bear dogu Aita Zakarias'en eriotza. Vellore'ko gaixotegian il zan 1957'ko Maiatzean. Seminarioan, 45 urtetan, etenbako lanean jardun ondoren il zan, gure artean utsune andi bat laga dabela. Aita Aurelianogaz batean, eundaka abade eta eleizgizon eta Mixiolarien espiritu gidari izan zan bera. Aita Zakarias'en izena Kerala guztian ezagun eta maitatua izan da.

Berak bertakoen artean eukan maitasuna agirian geratu zan bere illeta egunean. Kerala'ko gotzain guztiak batu ziran bertan, eta bes-

te ia bosteun inguru eleigizonetan, erriko jentea zenbatu barik. Aita Zakarias eleiz gizon on ona izan da, mixiolari jatorra eta fede biziz argitutako ikusmen andiko jakintsua.

Bear ba da Eleizak emongo dautsa, egunen baten, gizonok emon ezin dogun nortasunaren ezaupidea”.

Ni 1928 urtean Seminariora eldu nitzanean, Aita Zakarias'ek 36 urte eukazan, baiña gazteago zala emoten eban, ume itxura eukalako. Ingeles izkuntza ondo ikasi eban, baita malayalam'be.

Ordurako liburu batzuk idazten asia zan, batez be Apologetika gaiz. Ori zan bere gogoko gaia, hindu izakeraren ezaupideagaz batera.

Hindutarren sinismen eta filosofiari buruz azaldutako bere agiariak entzute andia artzen asi ziran.

Bat batez begiratuta, gaitz zan sinistea Aita Zakarias hindutarren ezaupidean ainbeste sakonduta egoala, batez be bere mistika eta zerutar giroa ezagututa. Orrez gairera kontuan euki bear dana da hindutarren sinistek ba daukazala mitoloji eta teogeni asko Terese deunaren eta Fontiveros'ko Espiritu-Kanta ikasten ari dan karmeldar baten sinisteari gogor datorkiozanak.

Hindutarren Siniskeratzaz liburu andi bi agertu zitun 1950 urtea baiño len. Liburu ori liburu txalogarri lez artu zan India'n, batez be Hindutarren Filosofiari buruz agertzen zitun eritziakaitik.

Mixioen aldeko zaletasuna izan zan bere berezitasunik andiena. Zaletasun orrek jabiartar gogoko elkarteak sortu eta liburuak argitaratzera bultzatu eban.

Elkarte orreitako bat, "Biurtze edo konbersiñoen elkarte" ize-nez sortu zan. Liburu asko agertu zitun malayalam izkuntzan.

Bere mixiolari asmotatik bat, Seminarioko aldizkaria izan zan. Asko itxartu zitun arek mixio lanetarako.

Aita Zakarias, bere betiko ume itxura galdu barik, mixiolarien artean gizon andi zan, bere denporetan, Kerala'n, beste edozein baiño andiago.

Esku zabal eta biozkorra zan, batez be ezeuki edo beartsuekin. Bere patrikerak zuloz beteak egozala esaten zan, bere ibilleretatik zentimo barik biurtzen zalako. Sekula ez eben prokuradoretzat autu, eta esan doguna izan lei orren zegaitia.

Egun baten, lapurrak, orma gainetatik sartuta, ainbeste tapioka ostu eben Seminarioan.

Frailetako batzuk zital ikusi eben lapurreta ori eta poliziari jakin erazi bear zala agertu eben. Baiña Aita Zakarias'ek erantzun eban lapur areik ori ostutera joateko premiña andien baten aurkituko zirala, eta saku bat tapiokak, dana jota be, eundaka pesetak balioko zitula ta ori kontuan eukiteko zala.

Aita Zakarias gizon oso-osokoa zan. Abade ikasleak benetan maite eben, euren auzi galdu guztien aldeze ezagutu ebelako. "Refugium peccatorum" deitzen eutsen.

Origaitik bere zorion eta santutasun autatzeko eskabideak, indar geiago artu dabe abade ikasletan, Aita Aureliano'renak baiño, nai ta danak ezagutu azken onen santutasuna.

Agiri bat: Bere il-tokira, illobira, ainbat lagun joaten dira, eta sekula ez da bertan lorerik falta, abade ikasleak eta erri zeak ipinita.

Gogoratzeko da Jaunaren otsein bi onein bizitzak alkartuta egon zirala eta euren artean maitasun zintzoan bizi zirala.

Nai ta Aita Zakarias esku zabala izan, iñoiz agertu zan estu be, bere eritziak bastertu nai ez da, batez be India'gaz nastatzen ziran gaitan.

India'n irakaskintza zelako bidetik erabili bear zan adierazten, ezaupiderik argiena euki eta agertu eban, batez be azkatasun ondoren bere bizitzara argitzen asten zan India barrian.

Ez etorren bat Erroma'tik bialtzen zituen irakaskintza aginduekaz, ikusten ebalako Europa'n egiñak zirala, ango berezitasun eta kultur ez bardiñak kontuan euki barik. Eta ez zan mututu ez ixilik egon bere eritzi orreik Erroma'ko Kongregaziñoei jakin erazi barik.

1930 urte ordurako Aita Zakarias'ek esaten ekian India'ko seminario bateko ikastaroak bertako kulturaren egokitasunean emon bear zirala, nai ta "Deus Scientiarum Dominus"en aginduak mundu guztiko abadegaien ikasbideak era bardintsutan erabili ta egin bear zirala agindu.

Nai eta bere eritzi ori askok onartu ez eta euren asarraldi eta garrazkeriak jasan bear, berak, bere aldetik, aingeru batek lez ikusten zitun danak, danak maitasun bardiñez ezagutuz.

Nik be, ondasun arduradun edo prokuradore lez, ez neban beti ondo ikusten bere esku zabaleko biziera, baiña bere zintzotasun eta karidade gogoaz ezagutu bearrean aurkitzen nitzan. "Ecce fidelis servus". Ara emen otsein zintzo bat.



Aita Heliodoro Imizkoiz

1884 - 1941

Puthempally'ko Seminarioa, 1912 urtean, Nabarra'ko San Joakin errialdeko fraileak artu ebenean, Aureliano eta Zakarias Aitakin batean, Aita Heliodoro izan zan Aita Juan Jose'ri arako lagundu eutsana. Antxe billatu neban, Ondasun arduradun lez, prokuradore lez, 1928'ko Urria'n ara eldu nitzanean.

Aita Heliodoro izentatu bearrean aurkitzen naizenetan, ardura bardifinean lan egin gendulako, maitasun berezi bategaz itz egiten dot beragaitik.

Iruña'n jaio zan Aita Heliodoro. Urteetan egina sartu zan karmeldarren artean. Ba eukazan amasei beteta. Iruña'ko denda baten kontulari lez lan egin eban. Origaitik ba eukan kontularitzako ezau-pidea lenengo Puthempally'n eta gero Alwaye'n prokuradoretzan jardun aurretik.

Ni Seminaria eldu nitzan urtean, 1928'n, aldaketa aizean ebiltzan Puthempally'n. Edo dana barriztu bertan edo ta Puthempally'tik kanpora eroan erakunde guztia. Ala esaten zan. Ametsen artean, etxe barri eder bat egitekoa zan, kultur eziketak eta gogo-ardurak gaur eskatzen daben neurrietan, bertako abadegaientzat. Orrek, kontularitza gaietan, lan ugari eskatzen eban.

Orduko ametsen artean, kontuak egin eta barriztatzen, Aita Heliodoro'k zeregin asko euki eban. India'tik kanpora, beste edozein tokitan, orrelako aurre-lanak, abade ez ziran ortarako gaiak egingo zituen. Baiña an, Puthempally'n, Aita Heliodoro'k ez eukan laguntzaillerik.

Alwaye'ko Seminario barria egiten asi ziranetik, au da 1930 urtetik 1941'n bera il arte, Aita Heliodoro'k banakaritza oiko kontuak eroaten zitun, bai abade ta ikasleenak, eta orrez gaiñera banakaritza guztiko kontu nausiak.

Ni beragaz lan orretan alkartuta nenguan lez, garbi esan neike, nai ta lan andia izan, bere kontu guztiak zeatz-zeatz eta erabide ba-

ten sartuak eroaten zitula. Bere banakaritzari esker, Always'ko Seminario barria egitea arin eta eratsu joan zan.

Beste aldetik, fraile lez, Aita Heliodoro fraile eredu zan; bazuntzako lege zarreko, baiña burubide eta pentsakera oneko, beri sentzu baten, prokuradore baten ikusbide jatorrez.

1933 urtetik bera il arte, bere laguntzaille lez egon nitzan. Gure zeregina erreztzat neukan, ain gertu eta ikasi zan fraile bategaz lan egitea pozgarri zalako eta kirolean jardute antzerako. "Navarrito" deitzen geuntsan, nai ta bere izatea eta gorpuzkerak geiago deitzea eskatu.

Always'ko Seminario andia egiteak eskatzen eban kontularitzaren gorabera agertzea ez da erreza. Kontuan euki bosteun langilletik gora erabilten genduzala lanean eta etxegintzarako bear gendun egurra atarateko, basotik zugatz enborrak eroateko elefante batzuk be erabilten genduzala.

Gure lana eraztuteko Aita Heliodoro'k esan eban egoki izango zala banakaritza zati bitan eroatea. Alde batetik berak etxegintzako kontuak eta abadegaiena eroango zitula eta bestetik, nik, kontratu eta etxegintzako gaien erosketa kontuak.

Orrela lana banatuta, arifago egin yakun, eta alkar laguntza egokiago gertatzen zan.

Ia egunero begiratzen genduzan gure banakaritzako kontu gaitzen zeaztasunak. Beragaz ondo konpontzen nitzan lez, dana billatzen gendun leun. Bestalde, zeregin orrek makina eta elektra gaiak billatzera batetik bestera ibiltera beartuten nindulako, Malabar aldian dana billatzea gaitz zan izan be-ta, niretzat ardura ori pozgarri zan, orrela India ezagutzen joateko aitzakia eta aukera nebalako.

Aita Heliodoro, nai ta ondasun arduradun nausi lez ibili, Teologi irakasle lez etorri zan Seminaria. Oitura zaintzalle lez, ez zitun atsegin filosofi eta teologi naastu eta batu bateko pentsabide eta jokera aldakorrak, baiña bizitzaren ona erraz eta sentzuz ikusteko nortasun bat eukan, eta berez eta tajuz emoten ekian egoera gaitz bateko urteera. Orain esango genduke, jatortasunaren seigarren sentzua eukala. Bera, beti, ziurrera joaten zan, eta ez ekanduetan eta ez bestelako gizonen jokerean, ez eban onartzen bai ta ez-eko jokabiderik.

Abadeak eta abade ikasleak maite eben, batez be India guztitik artzen zitun ekandu gaietazko erabagien eskabideei, beti ere jatortasun eta sentzu onez erantzuten ekialako.

Eriotza baiño aurretxuago idatzita laga ebana känduta, ez eban idatziz ezer laga. Mingarri izan zan ori guretzat. Bere esanetan, oituzazko gaietan geiegi idatzia egoan.

Lanean, gure lanean, ondo baiño obeto konpontzen giñan. Bazun ustez ondoegi. Bein, gure artako Aita batek Erretoreari salatu eutsan gure jardunetan denpora geiegi galtzen gendula.

Aita Heliodoro, soñez, egitura sendokoa zan, atleta baten antzeko, eta itxura baten saltzeko aiña osasun eukan. Baiña 1940 urtearen azkenetan, estetako min zorroekin asi zan. Itxuraz ez gogorrrak. Ni kezkatu nitzan eta ez nekien bere alde zer egin. Ortarako gertu ziran osagilleekana eroan neban. Osabide errez eta oiekin erabili eben. Berak ez eban arintasunik igarten. Esteak alkartuta ete eukazan be pentsatu gendun, opilduta. Baiña osagilleak ez eutsen garrantzi andirik emoten eta ez eben uste ebakuntzarik bear zanik.

Beste aldetik, Aita Heliodoro'k lanean jarraitzen eban, neke andirik erakusten emon barik. Baiña 1941'ko Jorrallean (Apirillean) bat batez gaiztotu zan eta ogetalau orduren barruan bertan bera galdu, bere arima Jaungoikoari eskiñiz.

Gertaera ori gogoratzean, sarri pentsatu izan dot, ebakuntza baten bitartez, bere bizitza salbatu egingo zala. Zetan esanik ez bai Seminarioarentzat eta bai niretzat bera bizirik jarraitzea laguntza andi eta premiñazko zirala.


Bere eriotza danontzako izan zan mingarri. Ezin ordeztu aiñakoa. Batez be niretzat,

Len bion artean banakaritzako kontuak eroateko bildurrik ez ba gendun, orain bakarrik arkitzen nintzanean, bera barik, gure buruaustek andi eta konpondu eziñeko lez biurtzen yatazan, batez be Seminariooko etxegintza eta bere banakaritzan.

Jaunaren borondatea ontzat artzea bearrezko zan. Baiña bere eriotzak nire soñean egin eban arrada eta sotiña andi izan ziran. Egunak eta gauak igaro nitun lorik egin eziñez, eta azkenean be gaitxotegira joan bearra euki neban, an, osagilleen laguntzak artuta, aurrera jarraitu al izateko.

Eskerrak, gaiñera, ori gertatu zanean, udako oporretan gengo-zala, eta aldi orretan Seminarioan agertzen ziran lanak be ez zirala izaten bat-batean erabagi bearrekoak.

Geroago, Iruñia'tik igaroeran, bere familikoekaz egoteko aukera euki nebanean, pozik agertu neutsen berari zor neutsan nire maitasun eta dedu ona. Izan be oso-osoko fraile a, frailetzan santu eta irakasle lez sentzu oneko zan eta gaiñera, ondasunen arduratsu jatorra.



Aita Balentin Zubizarreta

1896 - 1965

Balentin Zubizarreta Aita ez zan ain zuzen Seminariaora bialdutako mixiolaria. Baiña Puthempally'ra eldu nitzanetik ainbat bidar jardun nitzan beragaz eta origaitik bera be nire ezaupide eta inguruan eukitako mixiolari gogoragarrien artean sartu nai dot.

1928'ko Urrian Seminariaora eldu nitzanean, Aita Balentin Ernakulam'go frailien Batasuneko zan. Seminariotik amabi kilometro inguru egozan bertara.

Bere eleizako jaiak gertatu ziran baten, Aita Balentin'ek bere etxera deitu eustan, ango frailiei eleizkizunetan laguntzeko. Niretzat dei pozgarria izan zan, orrela Ernakulam lako erri eder baten egun batzuk igaroteko aukera neukalako. Cochín'go Erreïnuko uriburua zan bera.

Azkoitiarra zan Aita Balentin. Gipuzkoarra. Eta azkoitiar guztiak lez musikarako zaletasun andia eukan. Musikarako duintasun ori eleizkizunetan agertu nai izaten eban. Gaiñera errialde aretako izkuntzan maixu izatera eldu zan. Izkuntza orretan, malayalam izkuntzan, erreztasun txalogarriz egiten zitun bere sermoiak. Fraile jatorra zan, konbentu baterako jatorrago, urrutiko parroketan mixiolari lez jarduteko baiño. Ia ez eukan artu emonik beste mixiolariekin. Baiña beti ere fraile jator lez agertzen zan, eta parroki beartsuetan lan egiteko errez gertuten zan. Beti billatu neban biotz oneko eta esku zabaleko.

Aita Balentin'ek ezagutzen eban errialde eta inguru areitako zeaztasunak jakiteko nire zaletasuna eta origaitik poz pozik eskintzen zan nire ikastaroetan laguntzera, batez be karmeldarren mixioak toki areitan euki eben garrantzia ezagutzeko egin nai nituzenetan.

Lenengo egunetan Vasco de Gama'ren illobia ikustera joan giñan. Ospe andiko a bera, lur billatzailleen artean. Portugalدارrak eroan zituen bere azurrak lenengo Goa'ra, eta geroago Lisboa'ra, Antxe dagoz laterriak eskiñitako monumentu eder baten. Baiña aurre-rago Cochín'go San Francisco'ren eleizan egon ziran, eta antxe egon

zan bere illobia 1665 urtean olandarrak Cochin orretan sartu arte. Oraindik an geratzen dira aldi aretako idatziak ormetan, portugaleraz egina, gizon andi aren ibillera eta egitadak gogoratzen.

Ernakulam eta Cochin'ek, portugaldarrak eldu baiña len be, Erdi Sorkalde eta Mediterraneo inguruekin euren artu emonak euki zituen gizaldi luzetan.

Ba dirudi fenizitarrek marfil eta onkailutan (espezia) aberats dan lurralde onetara be eldu zirala. Orrelako siniskera ba dago euren artean.

Fenizitarrei gerkarrak jarraitu eutsen eta Erromarrak beste onei. Itxas Gorri izaten zan danen urten toki. Au garbi ikusten da Malabar eta Tamil Nadu itxasertzetan billatu izan diran diru zarretan. Nestoriotar kristauak Persiko Kolkotik zear etorri ziran, eta euren atzetik Arabitarrek. Oneik emen egozan amargarren gizaldian, Portugaldar, Olandar eta Ingalandarren aurretik.

Aita Balentin'ek esan eustan Luis Camoens portugaldar idazle eta poeta andiari gertatua, Cochin'go portuaren aurrean tirabira egin eban bera etorren ontziak, baiña alaz eta be bere "Os Lusíadas" kantuaren idatzia atara al izan eban ondamendi aretatik.

Cochin'go inguru areitatik egin genduzan ibillera baten Aita Balentin'ek judatarren bizilekuak erakustera eroan nindun. Judatarren toki orreik eta Ernakulam eta Cochin'go Sinagogak dira Sorkaldeko zarrenak. Kristautasunaren lenengotako gizaldietatik datoz.

Ba dirudi judearrak Itxas Gorri'tik sartu zirala. Gure boskarren gizaldirako ba egozan Cochin eta Ernakulam'en.

Inguru oneitara etorri ziran judearrak zati bitan banatuta egozan, bakoitzak bere sinagogakin. Judear zuriak ziran batzuk eta besteak baltzak. Ez ziran alkartzen euren artean. Ez dakigu, gainera, baltz orreik noiz biurtu ziran Judear siniskerara. Biurtze edo konbersiño bidez aldatuko zirala pentsatu bear da.

Bestalde Judearrak, euren sinistez eta oituretan, abertzaleitsuak dira, endazaleak, eta Judear baltz oneik agertzeak euren artean eskutuko zerbait erakusten dau. Aita Balentin'ek be ez ekian onetaz ezer.

Judear guzti oneik, baltz eta zuriak, danak, Israel aldera joan ziran oraintsu, baiña baltzetako askok ezin izan eben inguru areitan egoera egokirik billatu eta barriro Kerala'ra biurtu ziran. Judear

zurien artean ba egozan lengo denporetan España'tik erbesteratu zituen sefarditak.


Egun pozgarri eta zer ikasi askokoak ain mixiolari ona zan Aita Balentin'egaz igaro ondoren, Seminariora joan nitzan nire zeregifietan jarraitzera.

Bitartean Aita Balentin konbentutik mixio tokira joan zan, eta ia geiago ez neban aukerarik euki beragaz jarduteko, denpora asko igaro arte. Beti entzun izan neban Aita Balentin mixiolari lez lan ona egiten ari zala.

1963 urtean Vijayapuram'go Mixio erriko Bikario izentatu ninduean, aita Balentin nire menpean egon zan. Ordurako gaixo egoan, eta zaindu bear asko eskatzen eban. Ori zala ta berak ni India'ra eldu eta lenengo egunetan euki eban ardura eta ontasuna ordaindu nai izan neutsazan. Kerala'ko giro bero ta larriak sortu erazitako anemia eukan. Ni Errialde aretako Bikario aukeratu ta andik urte betera, alegin biziak egin nitun Aita Balentin bere lurraldera biurtzeko, osasun billa. Bañia bere gaixoak minduegi eukan eta ez zan geiago berera etorri. Donosti'n il zan, karmeldarren konbentuan, 1965 urtean, beti izan zan lez, karmeldar eredu lez.

Beretzat zori andia izan zan malayalam izkuntza ondo ikastea, eta probetxu andiko. Orretarako euskera jakiteak asko lagundu eutsala esaten ekian, izkuntza bien joskerak ba daukelako erabide bardin-tsu bat.

Aita Balentin beti izan da nire gogorapenetan atsegiñez gogoratu izan dodanetakua.



Aita Salustiano Lazkano Orobio

1883 - 1954

Edertasun andiko errialdea da Kerala, antxiñako Malabar. Tropikoetako giroz.

Iru gizalditan ementxe sortu ta bizi izan da karmeldarren Mixioa.

Bertara datorren mixiolariari berebiziko ikustaldiak eskintzen dautsaz errialde onek.

Koko arbolez beteta dagozan lautadak, jentzebeteak dira. Itxasertz inguru guztia sarratzen dabe ikuspegi orreik. Lautadetatik mendira jota, laster gertaten da bat bi milla metrotik gorako mendi goietan. Baso eta zugaitzez betetako toki orreitan, te orria artzen dan lurralde zabalak. Ikusera baten, suizar mendi andien giroan batzen da bat. Eta goi orreik baratz biurtu zituen ingalandarrak, eta eurentan, erabide jator eta berezi baten, tea landatu eta artu.

Goialde oneitan iñor bizi ez zalako, urruneko bizilagunak ekarri zituen lur landu oneitara. Langilleak baratzetan alkartzen joan ziran, euren zeregiña beteten eben tokietan. Lurralde orreik, nai ta urrun egon, gure mixio errian sartzen ziran lez, gure mixiolariak asi ziran ango kristautasun barriak ikusi ta fedean laguntzera.

Bertara lenengo eldu zan mixiolaria, markiñarra izan zan: Aita Alfontso.

Nai eta bidetxarrak egon, eta baso andiak igaro bear, arrisku gustiekin, bide zabalik ez egoalako, 1906 urte inguruan sarri joaten zan Aita Alfontso bakartade areitako lagunak ikustera.

Geldi geldo mixio tokiak sortzen joan ziran. Orretarako asko lagundu eban 1930 urtean zabaldu zan bide barriak. Baiña ordurako parroki bat sortua zan bertan, urte guztian bertan bizi zan parroko batekin. Inguru areitako te baratzetako langilleak ikusten be bera joaten zan. Baratzean bertan esaten zan meza, edo ango langille batzun etxeetan, eta iñoiz bertako zuzendari zanaren etxean. Jakiña, ingalandarra bera.

Erdi inguruko etxean, parrokia dagon tokia, Munnar deitzen da.

1910 urtean sortu eban Aita Alfontso'k. Mixiolari ospetsu au antxe bertan il zan 1916 urtean, eta berak sortu eban eleiz barruan obiratu eban, eta asko dira bere illobira joaten diranak lorak ipini edo kandelak eskintzera. Alaxe euren omena eskintzen dautse ango kris-tauak.

Ain zuzen ementxe, Munnar'en ezagutu neban Aita Salustiano, bertako parroko zan aldian.

1931 urtearen azkenetan zan. Aita Salustiano'ri lagun egitera joan nitzan, bere eleiz arduetan, Gabon jaietan.

Ordurako eleiza barriren zati eder bat egiña egoan. Parroki nau-si egiten zalako, askorentzako tokia egin nai izan zan. Egon be te baratzen erdi inguruan egoan. Ingalandarrak, jatorki, "Tea Gardens" deitzen eutsen toki orreri.

Nire gogamenetan Abendu'ko 23'ean eldu nitzan bertara. Illun-tzeak termometroak utsetik bera iragarten eban. Ibillerako ordu gi-txitan, giroak alde andia egiten eban. Always'tik urten nebanean, 22 gradu iragarten zitun neurkiñak eta Munnar'era eldu nitzanean, utse-tik bera. Nire azurrak otsez kikilduta egozan. Aita Salustiano'k eka-rritako su ta oeko berogarriak, gitxiegi ziran niretzako. Orrelakoxe lurraldeak gertaten dira mixioetan. Parrokoak esan eustanez, ur be-deinkatua izoztuta geratu zan. Baiña biaramon goizean, denporaldi aretan gertaten dan lez, eguzkiak ondo berotu eban.

Aita Salustiano nire lurraldekoa zan lez, ia ia erri bateko, gure jarduna etenbakoa zan. Baiña berak goi areitako eta baso areitako apostoladutzaz itz egin nai eban. Lurralde areik, euren luzera zaba-leran, ia Gipuzkoa erdi izango ziran.

Aita Salustiano'k ango baratz, talde eta mixio lekuak aitatu eta erakusten eustazan. Ia illero joan bear izaten eban danetara, bertako kristauei fede laguntza eroatera. Pozarren artzen eben bertakoak. Zai eukiten zitun. Berak esan eustanez, Te Kanan Devan elkartearen la-guntzaz, eta "La Obra Máxima"tik artutakoagaz eta beste lagun batzuk emonikoagaz, amar urtetan beste ainbeste eleiza barri jaso zi-tula, eta goialde areitako toki aukeratuetan beste sei jasoteko asmoa erabillala. Aldi aretako "La Obra Máxima" irakurteko aukera dau-kenak, laster irakurriko dabe Aita Salustiano'k, berak sortutako gin-tzagaz, ogetalau eleiza eta kapilla baiño geiago egin zitula, kare ta

arrizkoak, berak 1944 urtean Munna'rik urten orduko. Mendi goi goietan zabaldua dagozan kapillatxoak, Jaungoikoagandik urrerago egoteko lez egiñak ba liraken lez.

Bere eleiztarrak sarri ikusi al izateko, Aita Salustiano'k, "La Obra Máxima"ren laguntzagaz, motor indartsu bat erosi eban. Baiña ez ekarren motor orrek beretzako laguntasun andirik, bideak estuak ziralako eta arriskuz beteak, eta motorra txiki egiten zan bere serbitzurako bear zitun tresna eta jantziak eroateko. Origaitik "Fiat" bat bear ebala buruan sartu yakon eta lortu be bai, Erritarren artean egindako diru batzetan eta España'tik bialdu eutsenagaz ordaindu al izan eban bere balioa. Bere ibilbide orreri "Jesús del Gran Poder" izena ipini eutsan.

Gar biziz ebillan erdi astutako toki areitako kristauen artean lanean. Joaten zan bakoitzean beti lortuten eban konbersiñoen bat. "La Obra Máxima"ko umeak ainbat izen bialtzen eutsezan an bataiatzen ziranei ipinteko.

Aita Salustiano bere zeregiñean kezkatuta ebillan apostolu bat zan. Arentzat ez egoan bestelako lanik. Beti aurrean, lanean. Apostolu nausiaren itzak erabilten zitun: "gratia Dei urget".

Berak egiten zitun osteretan zer jan edo edan bear ebanaren ardurarik ez eban eukiten. Egun bi irutako joaten zanean, tortilla bi eta ogi zati bat eroaten zitun, beste guztia zela-ala lortuko ebala-ta. Giza soñiez gogorra zan, eta giroaren goraberak ixillean eroaten zitun, naigaberik agertu barik. Jenteak lotsaz begiratzen eutsan lez, iñoiz eztabaidak edo pentsakera ez-bardiñak sortzean, nortasuna eukan erabagiteko. Antxiñako erara gertutako mixiolaria zan, baiña zeatz eta zuzena. Bete-betekoa.

Mixiotzari buruzko erarik ez egoan beretzat; premiñarik be ez eban aurkitzen. Berezko jatortasuna eukan, edo jatortasun orregaz gainduten zitun teoriko utsuneak.

Teresetxu deunaren maitale zan. Gabero, apaldu ondoren, eleizara joaten zan Lisieux'ko santa areri bere bederatzurrrena egitera. Eta ni beste zerbaitetan ari nitzan artean, bera letaniak otoiztuten entzuten zan.

Bere eleiztarrekin ba eukazan bat bateko eskabide ta oitura gogorrak. Bere "Jesús del Gran Poder" kotxea konpontzeko, zortzi

mekaniku bere serbitzuan eukazala esaten ekian, eta konponketako lantegia be etxe azpian.

Igande baten, bidean zear giñoiazala, bere mekaniku orraitako bategaz topo egin eta esan eutsan: Mezarrik entzun dozu? Ez. Ba penitentziz beste meza bat entzun eta nire kotxea konpondu. Jakifia, ordain barik. Doan. Eta biak, frailea eta mutilla, onez geratu ziran, gauza oi bat eta alaxe egin bear zaneko lez.

Lagunartean bizi dan mixiolariak, taldeagaz batera pentsatzen dau eta bere lagunekin baliatzen da. Baiña bein mixiolari bat bere ekintzan bakarrik geratzen danean, bere kontura lagaten da apostoladotzako gauzak erabagi eta diru kontua be eroatea.

Onek ba dauka bere akatsa eta ez txikia. Mixiolaria ekintza andi eta ugaritsua ba da, bere ekintza guztia berekorregi biurtu lei, jokera eta eginbiderik onenak bereak dirala sinistu be egiñaz, berak baiño obeto beste iñok toki eta lanbidea ezagutu ezin ba ledi lez. Eta gertatu lei Mixio'ko Gotzaiñak laguntzalleren bat bialdu Mixiolariari eta lagun au zearo bastertuta geratzea. Ori gertatu yakon Aita Salustiano'ri Munnar'en.

Buenaventura Arana Monseñora zan orduko Gotzai. Aita Salustiano lagun baten premiñan egoala pentsatu eban eta Aita gazte bar bialdu eutsan. Lenengotan ez ziran ain txarto konpondu, baiña gazteak igarten eban egunetik egunera bere laguntasuna bastertuagotzat etsiten zala, Aita Salustiano bere bidetik ebillala, bere lagunari jaramonik egin barik eta bien artean laneko goraberak aztertu barik.

Gotzaiñak lagun gaztearen naigabeak eta esanak entzuten zintun. Ta igarri eban lez Aita Salustiano'k berean jarraitzen ebala, Munnar'etik beste toki batera bialdu eban. Aita Salustiano'rentzat erabagi au minkor eta zitala izan zan eta txarto artu eban. Aita Salustiano'k ez eban sekula orrelakorik pentsatuko ain on zan Gotzai aregandik.

Munnar'etik baiña giro bardintsuko toki batera bialdu eban Aita Salustiano, eta lanbide bardin samarreko. Baiño bere biotza Munnar'en gelditu zan.

Izentatze ori zitala izan zan beretzat. Ia illabeteen ez jan ez itzik ez eban iñogaz egiten. Esan be egin eban Gotzaiña oker egoala, edo

lagun gazteak guzurrez atzipetuta. Esaera gordin eta garratzak entzun eutsezan erabagi orren aurka. "Ecce potestas tenebrarum" eta abarrek urteten eutsen.

Gertaerak bardiñak izan ezarren Bernardo Arginzonik Monseñora, Verapoly'ko Gongotzaiña eta Jaunaren otsein dan Juan Bixente Aitagaz gertatua datorkit burura. Arek "a divinis" kendu eutsan oneri Ernakulan'en autortzak entzuteko eskubidea. Goi-argiak santuen onerako lagaten ditun gertaerak dirala esaten da. Ukatu ezina da beintzat Aita Salustiano mixiolari fedetsu eta errukitsua zanik. Edozein toki ta denporetan Errosariua errezaten ebana zan.

Bere toki barria Peermade zan. Nai eta biotzez minduta geratu, lanean asi zanean barriro gogotsu ebillan. Eta gauzak ondo urten be bai. Baiña egiten ebillan eleiz barriaren tellatua bertan bera jausi yakon. Ori, beretzat, Mixioko zeregin eta ardurak amaitutzat emon bear zitulatzat izan zan. Origaitik bere errialdera, bere Probintzira biurtzea eskatu eban.

Larrea'ko konbentuan bizi izan zan gero, ixil eta umil, eta bertan il zan 1954 urtean, errosarioa eskuetan eukala.

Nire azken oar bat Munnar'eko Mixioren sortzailea dala-ta

Aita Salustiano'gaz euki nebazan jardunetatik, eta batez be eleiza aretara egin nebazan ikertaldietatik dakit, markiñar bat, Aita Alfontso Mari izan zala Munnar'eko Mixioko sortzailea.

Aita Alfontso (1854-1916) Cangrenore'ko parroko zan 1914 urtean. Verapoly'ko Artxigotzaingoko parrokirik andienetako zan. Eleiz au lautadetan egoan, baiña Aita Alfontso'k atsegin izaten eban andik 120 kilometrotara joatea, Munnar aldera.


Urtean bi iru bidar ikusten zitun Munnar'en bizi ziran kristauak. Kontuan eukiteko da, berrogei bat kilometroko baso itzalak igaro bear izaten zitula, Eibar'en eskini ta emon eutsen eskopeta bategaz. An ebiltzan piztien aurka jokatzeko, ori ta geiago bearke eban.

Maite eben Munnar'eko kristauak. Bere ikertaldi baten, malaria gaixoak jo eban eta txarto geratu zan, eta andik laster il zan,

ifloren laguntza barik, nai ta ori jakitean mixiolari batek urten bere laguntzan bera egoan 150 kilometro ingurutik.

Santutasun entzutea laga eban Aita Alfontso'k. Eta bera ilda andik ogeitamar urtera be, au da ni ara juan nitzanean, ango jentek meza eskintzera etorten ziran bere omenez eta gomutaz.

Beste denporaldi baten, markiñar mixiolari ospetsu eta gogotsu au, erriaren borondatez santutzat autua izango zan.



Aita Blas Zinkunegi

1882 - 1961

India'ra eldu nintzan arte ez neban ezagutzen Aita Blas'ik, "La Obra Máxima" k agertzen zitun bere argazkietatik ezik.

Malabar' era eldu nitzanean, Mundakayam'go eleiz andi bateko parroko zan. Alwaye'tik 110 kilometro egozan bertara.

Oiturazko zan udaldiko beroetan, Jorrail eta Mayatz bitartean, gure Seminario'ko Aita irakasleak Peermade'ko mixio etxera joatea, an, Kerala'ko mendietan, giro oneko eta atsegiñeko atsedena bat igarotera.

Atsedena aldi ori niretzat be egongo zalakoan nengoan. Baiña denporaldia eldu zanean esan eustenez, India'ra eldu nitzan lenengo urtea zan lez, egokiago izango zan niretzat mixio bizitzan ikasi eta sendotea eta ango lautadetako beroari nire gorputza egiten oitutea.

Orrelaxe egin neban.

Baiña urrengo urtean, 1930'n, nire txandaren zai egon ondoren, Peermade'ko goialdetara eldu nitzan Udako atsedena artzen.

Milla metro baiña gorago dagon goi-lautada bat da Peermade. Gure denporetako autobusak eguzki nai euritarako idegiak ziran, zabalak. Eta eurentan joan giñan, batean sartu ta bestean urten, zoragarriko izadiaren azkortzea ezagutzen, tropikoko giro aretan.

Errebira eta goitibera arriskuz betetakotatik zear, sartu be ezin eikean basoetatik zear igo giñan millatik gora metrotako toki aretara. Basoak, basoen sakonak, bildurra be sartzan euskuen. Salmoa gogoratzen gendun an: "Levavi oculos meos in montes unde veniet auxilium mihi". Mendietara jasoten nitun nire begiak, nundik etorriko bear neban laguntza.

Oker ez ba nabil Epailla'ren 12'n eldu giñan bertara iru fraile, gure oporrak igaroteko bear genduzan tresna guztiak autobusean geroiaguzala: kandela, mezatarako ardaa, jantziak, sartaiñak eta abar. Bai eta berrogei egunetako oporretan bearko gendun dirutxua.

An goietan, beti lez alai eta biozkor, Aita Blas zai gendun, al eban bestean laguntzeko eta mixio etxe aretan al zanik egokien leku egiteko.

Parrokoaren bizilekutik albo, etxean konbentuetako itxurako gela bi egozan, eta beste aterpedun gairiditu bat, edozetarako.

Gela txiki baten, gure oreak kurtiñekin banatuta, iru Aitak gertu gendun gure atsedean tokoa.

Bizitzarik geiena gairiditu edo barandan egiten gendun, toki andi eta zabala zalako eta edozetarako egokitzen zana.

An maitatu eta aintzat artzen zana, giroa zan, ogei gradutako giroa. Lautadetan berrogeikoa egoten zan.

Bear genduzan janariak Aita Blas'ek erosi euskuzan eta Meza kontu eta abar beragaz konpondu genduzan. Orrelaxe asi genduzan 1930 urteko oporrak.

Aita Blas'en ardurapean lurralde zabal eta neurribakoa sartzen zan. Mundkayam'eko parroki andia eukan lautadetan, menditzen gibelean. Udaldian bere laguntzaillea lagaten eban an eta bera Peermade'ko mendietara igo. An eukazan, goi alde aretan, kapillatxu batzuk.

Niretzat beti izan da Peermade udaldia igaroteko toki egokia, Baiña Bagil eta Irailla'ren bitartean, indi aizeak dakarrezan euriak asten diranean, biziteko toki garratza da.

Kafe, Te, Kautxu eta beste ainbaten landatzeak egiten dira an. Orrek, paradisu baten itxura emoten dautsa lurralde guztiari. Toki batzutan egozan basoak, sartu eziñak ziran, iñoiz gizonik sartu bakoak, eta abere ugari bizi ziran bertan: tximiño, elefante, eta katomtzak batez be. Mendi batzuk garbi egozan, orraztuta lez, eta ainbesteko landaredi ta azkortze artean, ikuspegi atsegiña osotzen eben.

Aita Blas etxean egoten zanetan, bera izaten gendun laguntzaille gure ibillaldietan, mendi eta inguru areitako gauza eta gertabide askoren barriak emoten.

Egualdi onetan Aita Blas bere mixio kapilletara joaten zan. Ez aukan kotxerik. Ainbeste aukera eukiteko denporak ez ziran oraindik guretzat. Baiña burdi bat eukan, idi zuri bik erabilten eutsena, eta milla serbitzu egiten eutsazan.

Burdi orretan ipinten eban bere oea, eta antxe baita bere tresnak, eta berak esaten ekianez, gaba burdi orretan igaroten eban ego-ki ta pozik.

Bere idi-zaiña siniste bako hindutarra zan. Maite zitun idiak eta ondo zaintzen ekian. Beti garbi eukiten alegintzen zan, eta ur gitxi egonda be beti billatzen eban aukera eurak uretaratzeko.

Aita Blas'ek esaten ekian bere Kristau idizaiñak ez ebela ain ondo euren zeregiña bere mesedean beteko, hindutarren antzera beirik zaintzen ez dakielako; areintzat abere sakratua dalako, nai eta idiak begirapen bardiña euki ez.

Errexil'en jaioa zan Aita Blas, eta bere mixio lana zintzotasunez eta gartsu erabillan. Gizon jatorra zalako, berari be lotsa gorde-ten eutsen; eta ia bildur apur bat be bai gizasoin andiko zalako. Baiña gizon ondo-ezi eta biozkorra zan; ain zuzen be mixio artean euki eta zaindu bear diran onoimen biak. Aita Blas'en laguntza barik gure oporrak nastetsuago izango ziran eta ez eben eukiko ainbesteko alaitasunik.

Baiña ez zan dana goragarri eta eder Peermade'n. Edateko ura, nai ta otza agertu, irazita gero be, txarra zan. Ur aren garratzasuna kentzeko, gure jatorduetan ardau zuri kopatxu bana artzen gendun. Ordez, jatekoa merke, ugari eta osasuntsu billatzen gendun.

Goizetan ikasten ekiten geuntsan. Ba gendun ordu ugari arratsaldean mendi zaletasuna bizkortu eta aizetzeko, ingurutako mendietan ibiliz. Illuntzetan eguzkia itxasoan sartzen ikusten gendun, gure buruzko otoitzak egiten genduzala edo ta gure errialdeko kan- tuak abestu. Aita Blas pozik alkartzen zan orretarako.

Peermade'ko ikuspegiak zoragarri dira. Eurei begira Kurutzeko Jon deunaren Espirituzko Abestia gogoratzen da, bereziki Emazteak izakiei itanduten dautsenean :

Maiteak bere eskuz landutako
baso eta sarrioak,
lorenz apaindutako
baratz eta ortuak,
esan zuen artetik igaro ete dan.

Eta izakiak erantzun :

Oian onein artetik arin joana da
milla esker zabaltzen,
eta begiraka eioala,
bere itzalez bakarrik
ederrez jantzita laga zitun.

Peermade'ko gure etxetik ogei kilometrotara, beste kapillatxu bat egoan, Aita Blas'en ardurapean. Thekkady izenez ezagutzen zan, eta ain zuzen be kapillatxu ori India Egoaldeko abere basatien Latterri Parkearen sarreran egin zan.

Aita Blas'ek ba eukan ezaupidea eta bertarako bear zan baime-na laster lortu euskun. Parkearen erdialdean, ur-langa eder bat dago. Ontzi bat ordaindu gendun ur-langa orretan ibili eta bertatik inguru areitako abere moltsoak ikusteko: Elefante, bisonte, bufalo eta abar. Aibesten artean katamotz bakar bat ikustea lortu gendun, bera gure txalopa ingurura etorri zalako.

Gutako bik gau osoa igaro gendun urez inguratuta dagon etxe baten, antortxa eta kurtzailu argitara gabean andik ibiltzen ziran abereak ikusteko asmotan.

Aita Blas'eri esker, bera izaten zalako orrelako edertasunak ikusi al izateko aukera emoten euskuna, gure oporraldiak alaitasun eta atseginéz beteta igaro al izaten genduzan gure gastearoan, Europa'n laga genduzan beste atsegin asko aztu eragiten euskuanak. Eta egia esateko guk be lagundu egiten geuntsan bere zereginéan eta origaitik ez giñan beretzako kaltean joaten.

India'ra joan barri giñan eta guretzat dana zan on eta pozgarri.

Baiña bizkortasunak bere atzetik eroaten dau berakada be, eta gure oporrak be euki eben gertaera larri bat.

Mayatza'ren erdi ingurua zan. Peermade'ko giro eta inguruak lagateko asmotan asiak giñan, be aldetako giro beroagoetara joateko. Eta uste ez gendula, gau baten, Aita Blas gaixorik jausi zan.

Malaria gaixoak jo eban zitalki, eta bertan bera edo bertan goraka ustuten asi zan. Ilgo zala pentsaten asi giñan.

Malaria gaixoa sortu eraziten daben xomorrua biziago da gaue-

tan, gau erdian, eta osagilleari deitzeko erarik ez gendun lez, eta etxetik urteiera ausartzen ez giñan lez gabetan ibiltzen diran abare basatien bildurrez, gure estutasuna larritzen joan zan. Ez genkian alako gaixotasun joaldi baten zer egin. Baiña malaria gaixo onegaz gertatzen dan lez, sukarra arindu egiten zan goizean, eta orrela Te baratzetako osagilleari deitu ta arek osakai berezi batzuk emon eutsazan.

Baiña ia gabero joten eban malaria gaixoaren joaldi orrek, nai eta gero ta bigunago. Malariak etenda laga eban Aita Blas'en giza-soiña zortzi egunetarako. Makal eta erkin.

Orrelakoxea da malaria ori eta garai aretan an bizi ziran geienak artzen eben bere joaldien bat.

Nai eta beti ilkorra izan ez, gaixo onek giza izatea jota lagaten dau, beretik urtenda, eta lanerako adore barik.

Aita Blas laster etorri zan ia berera, eta kinina pastillekin baliatzen zan, baiña oneik be ba dakie belarriari kalte egiten.

Aita Blas'eri gure agurra egin, eta Peermade'ri bardin, eta Seminarioara biurtu giñan ikastetxeko gure ardurak betetera.

Aita Blas'en gaixo onek emon euskun estutasuna kenduta, gure opporrak benetan alai eta zoriontsuak izan ziran.

Aita Blas'egaz oartu genduna ikusita, laster asi giñan konturatzten Peermade'ko ingurutan an bizi ziranetatik erdiak baiño geiago jotzen zitula gaixo orrek. Aldi aretako estadistikak esaten eben, urtean milloi bat lagun baiño geiago ilten zirala gaixo orren kutsuz.

Latorriko eta erbesteko elkarte eta erakuntzen laguntzaz, batez be DDT sartzen emon eben laguntasunagaz, gaixo au gaitzen asi zan India'n.

Ni Vijayapuram'go Mixioko Nausi nitzala, 1965 urtean, orduntxe zabaldu zan malaria gaixo orren aurkako nazio-arteko azken lan-tokia, eta orduntxe amaitutzat emon zan gaixo orren aurkako ekiñari. Ortarako iru antenadun euli txikia zapaldu bear zan.

Euli txiki au ur geldietan sortzen da eta potzu batzutan. Orretarako premiñazkoena, eulitxoa zaindu eta uretatik urteten ez lagatea da, aizerik arnastu ez dagian, oxigenorik artu ez dagian. Au DDT eta antzekoekin lortzen da.

Baiña bildur naiz. Barriro asi naiz entzuten malaria India'n

agertzen asia dala, eulitxo orrek DDT'ri, bere kalteari, eusten ikasi dabelako.

Peermade'ko errialde ori ez zan gure Mixioan garrantzitsuena katolikotasunera biurtzetan.

Egia esateko parroki zabal aretan Aita Blas'ek beti lortzen zitun kristau barriak eta oneik ondo ordaitzen zitun "La Obra Máxima" k.

Aita Blas berberak esanda dakit, berak garai aretan lan ugari-tsuago egiteko aukera geiago ikusten ebala Mundakayam'en, lauta-detako parrokian.

Benetan be lurralde areitan, 1930 urte inguruan, hindutar arraza bekuak euren abadeak bastertuta lez etsiten ziran eta orrek gure alderako giro ona zabaltzen eban. 1.930-1.936 bitartean, Pentekostes barri bat lez ezagutu zan Aita Blas'en mixio zerutarrean.

Denporaldi orretan, nekatu barik, etenbako lanean jardun eban Aita Blas'ek lautadetan, eta katolikotasunera biurtzeko giroak lagun-duta, urte orrein buruan lau milla lagun baiño geiagon izenak eukazan berak bataiatu eta katolikotasunera ekarrien artean.

Aita Blas'ek ez eban bere lanik ukatzen orretarako, bere alegi-ñik neurtu be ez, nai ta bera lasaitasun, lo eta beste atsedenaaldi ugari bastertuta laga bere lanaren mesedean.

Biurtze oneik ba ekarrezan ainbat gastu eta zor, orreitarako kappilla barri, dotriña-etxe eta abar sortu bear izaten ziralako. Baiña askotan premiña orreik "La Obra Máxima" ren laguntasun eta arduraz beteten ziran.

Benetan be urte ugari eta oparotsuak izan ziran urte orreik Aita Blas'ek izentatuta eukan mixio aldian. Jaunak eskartuko eutsan, ezpai barik, bateko eunez eta betikotasunez, bere mixio serbitzu ain jatorraren orde.

Nai eta ni Peermade'ra joan ez, nik neukan zeregiñaren egin-bearrez, sarri ikusten neban urteetan be Aita Blas.

"La Obra Máxima" k be bere zenbaki guztietan ekarrezan ainbat argazki Aita Blas'ek bateatutako ume ta nausienak.

Arrezkero, biurtze kontuetan, ez da ainbeste ugaritasun ezagutu. Ba dira tartean errazoiak.

Or gelditzen da betiko, bere kristauen alde z an guztia eskiñi eban mixiolari onen bizitza.

1936 ondoren, Aita Blas'ek bizimodu baketsuagoa eroan. Vijayapuram' eko Errialdeko Bikario izentatu eban. Oraĩndik ez eukazan berrogetamar urte. Korxea be ba eukan eta beragaz joaten z an bere menpeko mixiolariak egozan tokietan ikustera.

1940 inguruan, Munduko Bigarren Gerra sortzean, bere gotzaiñak parroki andi eta garrantzidun bat eskiñi eutsan: Munnar'ekoa. Peermade'ko parrokiak baiño eleiztar geiago daukaz parroki onek eta ez-bardintsuago be bai. Bere giroa osasuntsu eta biguna da. Ghats mendietan dago.

Sarri joaten nitzan ara bera ikustera, Alwaye'tik arako bidea errez egiten dalako eta arin. Gaztetan Peermade'n igarotako egunekin gogoratzen nitzan an. Peermade'n nire gaztaroan igarotako egunak gogoratzen genduzan bein eta barriro. Bi milla metrotara eltzen diran mendi areitako bizitza atsegiña z an benetan. Bertako ikuspegiak paradisu baten antzerako. Urtean, euri neurtzalleak esaten eban lez, eurimetroak sei metro aiña ur neurtuten zitun. Ango giroa atsegiña z an.

Baiña Munnar'eko Aita Blas ez z an Peermade'ko bardiña. Nai ta kotxe bat euki bere aukeran, eta zaletasun andia agertu parroki zabal a eroateko, bere lanaren zati andia lagaten eutsan bere ordezkariari. Ara egiten genduzan osteretan bein baiño geiagotan aitatzen gendun bere Probintzira biurtu eragiteko denpora eldua ez ete z an, emen, baketan, eriotzarako gertuteko denpora emoteko.

Nire ustetan oraĩndik indartsu eta gartsu egoan, oraĩndik Mixio aretan lan asko egin eikeala. Baiña ezagutu bearreko da mixio bateko lanak urte asko jaten dautsazala mixiolariari. Eta ez dago mixiolariarik, baikorrik andienik be, bere lanean eragozpen, atsekabe eta garraztasun ugari euki ez ditunik. Eta orrek baten adore eta bizitasuna atzeratu eragiten ditu, bereziki, Aita Blas'egaz gertaten z an lez, India'n 36 urte eroazan bateri.

1949 urtean bere Nausiei eskatu eutsen bere errialdera biurtzen lagateko, bere lanetatik atsedean artu eta era batez Probintziko gartzietei eredutzat lez agertzeko.


1973 urtean, Kuwait'etik India'ra joan nintzanean eta Peerma-

de'tik igaro, gure gaztetako oroitzak barriztuteko gure oporetako etxetxoan geratu nai izan neban. Arranoen abi lako iruditu yatan etxe a.

Aita Blas'en ordez, Aita Felizisimo billatu neban an. Bizkaï'ko Morgatarra. Ordurarte andik ibili ziran gure San Joakin errialdeko mixiolarien zerrenda luzetik geratzen dan bakarra.

Aita Felizisimo'k Mixiotan denporarik geien eroan daben mixiolarien record guztiak zapalduko ditu, Berrogeitazortzi urte daroaz an, eta sekula ez da bere Aberrira biurtu.

Oraindik gogor dago, bizitasunez beteta, eta mendi eta tontor areik gaztetan lez osteratzen daki.



Aita Juan Damaskotarra

1870 - 1955

Aita Juan Damaskotarra.

Beste izen barik, geiagoko deitura barik, orrelaxe, zeatz, ezagutzen gendun bera.

Amorebieta'n jaioa zan.

Mixiotako oraintsuko istorian gertatu eta ibili diran mixiolari bakanetakoa zan.

Bere mixio lanak aupatu eta goratuak izan ziran bere denporetan egindako idazkietan. Karmeldarren mixio aldizkarietan agertu ziran. Alaz eta ez dot uste bere mixiotako lan goralgarria bear aña agertu eta goratu danik.

Malabar aldean, ango lurraldetan, mixiolari talde bi eukiten zitu en karmeldarrak. Belgika'ko frailien kontura bat, Nabarra'ko San Joakin errialdekoen kontura bestea.

Eta Aita Juan Damoskotarra Flandestar probintziko fraileak an euken mixio taldean sartuta ebillan, euskaldunak arei eskiña zalako.

Estu ibilten ziran lagunez belgikarrak. Osta-osta gizez. Ordez, ondasunez, diruz, ondo. Eta gure probintziak lagaten eutsezan gizon batzuk bear ziran utsunak beteteko.

Orreitako mixiolaria zan Aita Juan. San Joakin errialdekoak belgikarrei eskiña. Berak, Begoña'ko ikastaroak amaitu ta batera, 1895 urte inguruan, Malabar'en, Quilon'go mixiotarako izentapena artu eban.

Mixiolari gartsu zalako, berari eskiñi yakon mixio lurraldeko giroa zeatz aldatu eban. Egizko apostolu izan zan an. Bere lan ugaria, aintzaz bete eta ondoren onez gaindua izan zan.

Mixiotan ainbat urte egin eta bere bizitzako 70 betetzean, Mar-kiña'ko konbentura aldatu zan, berrogei ta amaika urte mixiolari jator eta ospatsu lez eginda gerô.

Mixio aretako liburuak aztertuten ba doguz, ezer egin ez ba leu lez, berrogei mixio toki eta euren eskola, kapilla eta inguruak, zabaldu zitula irakurriko dogu. Beste 35 eleizatxo be jaso zitula. Be-

rogei ta amar milla kristautu zitula gizon eta andre artean eta beste bost milla umeri zeruetako ateak zabaldu eutsezala.

Ain labur esanda be, argi ikusten da bere lanaren ugaritasuna eta Malabar'eko lurralde areitan Aita Juan Damaskotarra'k erabili eban ekintzaren ondorena.

Bere bizitza guztian gizonak katolikotasunera biurtzen alegindu zan lez, Jaunari begira eta Jaunaren aintzan egindako lan txalogarri onek ez dau aipamen berezik eskatzen.

Bere zeregin guztia Paulo Apostoluaren ardura eta gidaripean bete eban. Esaten dana: "Apollo rigavit, Deus autem incrementum dedit". Au da, Apolo'k busti, baiña Jaunak emon eutsala indarra.

Mixiotako edestiari begira, Aita Juan onen lana mixio artean bere gizaldian egindako lanik andiena zala esan lei. Bear ba da bere parekotzat Aita Lievens jesulaguna, flandestarra aitatu leike. Onek, gizaldiaren asieran, Chotanagpur Mixioan, India'ko Iparraldean, ia Aita Juan'ek aña lagun biurtu zitun katolikotasunera.

Jabier'eko Frantzisko deuna, Eleiz ordezkari lez eukan indar eta nortasunez, geroago Aita Juan Damaskotarra ibili zan lurralde onein inguruan ezagutu zan.

Norbaitek itandu lei, zenbaterañoeko egi ete dan Eleiz Breviario'an eta antxiñako Mixio kontuetan esaten dan "centena millia" biurtze edo konbersiñoen kontua.

Gaurko sinistetan zenbaki oneik ez dira ainbesteko zeaztasunez artzen, orduko kontu eta kronikekin bat ez datozalako.

Sarkaldeko burutapen eta gogoaren irudi geiago izan ziran, sorkaldekoena baiño. Ala autortu bear, nai ta au gogor jausi belarri askotara.

Alaz eta garbi eta jator esan bear ba da, Jabier'ko Frantzisko deunak, bere ondoren, mixiotako goraberetan, oraindik iñok bardindu ez daben nortasun, ezaupide, gorapen eta giroa laga zitun.

Ez dakit ziur noiz ikusi neban lenengoz Aita Juan Damaskotarra. Nire oroitzetan ba daukat gizaldiaren ogeigarren urte inguruan ikusi ete neban, ez jakin ziur Larrea'n ala Markiña'n, mixiolari andi ori atsedean aldi bat artzen bere errialdera etorrira egoan garaian. Malaria gaixoaz egon eta geroago arek emoten eutsazan otzikadetzaz

zerbait itz egin euskulakoan be ba nago. Baiña zeaztasun geiagorik ezin emon lenengo ezaupideko denpora oneitzaz.

1928'garren urtean India'ra eldu nitzanean, Aita Juan Damaskotarra Quilon'go mixioan ebillan lanean. Alwaye'ko gure seminariotik berreun eta berrogetamar kilometro egozan ara, eta origaitik ez neban lenengotan ezagutu. Bai gerotxoago, Buenaventura Arana Monñora gotzai sagaratu ebenean. 1930 urtearen erdi inguruan izan zan, Kottayam'en. Vijayapuram'go lenengo gotzai izan zan orren sagartzera, ainbat gotzai, abade eta erritar batu ziran. Deituen artean ezin utsik emon Aita Juan Damaskotar onek. Ain zuzen be gotzai barriarren errialde beretako zan eta ia bere errikide.

Ordurako Aita Juan'ek 35 urte eroiazan lanean, Quilon'go Mixioan. Katolikotasunerako biurtzetan egiña zan, aupatua. Buenaventura Arana'ren gotzaintzako bazkarian, bazkari ondorenean, ainbat brindis egon ziran. Euren artean Aita Juan be agertu zan. Bere brindis'a txalotua izan zan. Ainbat izkuntza erabili zitun bertan: malayalam, tamil, ingles eta euskera. Babel barri bat irudian itzaldi arek. Baiña bere apaltasun eta berezkotasunak ondo jausi zan danen artean. Atsegiñez entzun. Naikeri eta txikikeri bagako bere itzaldian danak ezagutu eben beragan mixiolari jator eta benetako baten izatea.

Geroago alkarren ondorago ikusteko aukera euki neban eta mixio goraberak alkarregaz aztertzeko aldia artu. Antxiñako denporetan gure mixiolariak ez euken atsedean artzeko oporrik ez ortarako lekurik.

1932 urtean Alwaye'ko Seminarioa eratu zanean, irakaslientzat udarako etxe bat aukeratzea erabagi zan, igarotako urtearen ondorenak arindu eta barrirako asmo barriak egin al izateko. Ortarako etxea Kotagir'en erosi eban Seminarioa'k, Nilgiris mendien goialde atsegiñetan, itxas aldetik bi milla metrotako goietan. Belgikarren Mixiokuak be orrelako etxe baten billa ebiltzan. Origaitik, gurearen alboan, beste etxe bat erosi gendun, bere lurralde ta guzti, ango mixiolariantzat.

1933 urte inguruan zan ori. Seminarioko fraile taldearen prokuradore nitzan eta origaitik ni izan nitzan etxe bi eta euren lurraldien erosle.

Belgikar mixiolariekin batean Aita Juan etxe aretara joaten zan.

Orrela bera ikusi eta beragaz ibillaldiak egiten urteteko aukera euki neban. Urtero artzen genduzan oporrak eta orrela aukera asko izan genduzan alkar ikusi eta alkarregaz ibilteko.

Apal apala zan Jaunaren apostolu au. Soñez andi eta gogor, ibilten asperbako, baiña asmo bakar bat bere gogoan: bere mixioa eta bere kristauak. Atsegiña zan apostoladutzako buruauste eta jokarak beragandik entzutea. Garrantzirik emon barik, baiña bere-bere esaten ekian, bera ez zala pozik geratzen urteren baten milla lagun kristautzera elduten ez ba zan.

Berari itanduten neutsanean zelako gertaera ekarri eban gure Probintzitik mixioetan ainbeste lan egiteko, berak erantzuten ekian apal-apal, bere ikastaro oiak, bere anka gogorak eta bere buru txikia zirala Jaunak berari emon eta lan egiteko erabilten ekiazan gai bakarrak.

Egia esateko, lengo denporetan mixiolari bateri ez yakon eskatuten mixio lanerako gogoia besterik, eta orregaz batera espiritu ona eta arimen gar bizia.

Aita Juan Damaskotarrak esaten ekian ez ebala euki ingles izkuntza ondo ikasteko aukera andirik. Ori, garai aretan, garrantzi andiko zan, batez be errialdeko agintariekin euki bear ziran artu-emo-netarako.

India'ra eldu eta andik ille bira bialdu eben parroki batera, an urteak eroiazan belgikar baten arduretan egoan parroki batera, eta parroko a eta eskola maixu egiten ebana izan ei ziran berari ingles izkuntzako asierak eta oiñarriak erakutsi eutsezanak, erri aretan ez egoalako beste ifior izkuntza ori ezagutzen ezanik. Inglesa ikasten eban denporan asi zan Malayalam ikasten be. Izkuntza au erakusten zan eskoletan, erri izkuntza lez. Izkuntza orrek ba dauka euskereagaz bardintasun pixkat, batez be bere syntaxisean. Aita Juan'ek ikasi bear eban beste izkuntza, Tamil deitzen dana zan. Au be Malayalam'en antzeko, eta euskereagazko jokera bardintsukin. Esan bearrrik ez dago iru izkuntza batera ikasi bearrak Aita Juan'eri buruauste eta naste ugari sortu eragingo eutsazanik.

Orrela, ez da gaitz pentsatzea, Aita Juan'ek ez zitula ikasi, osoan beintzat, iru izkuntzak, eta iruretatik zerbait ikasiagaz geratu zala. Denporak bear izan zitun iru izkuntzak ikasteko, baiña Malayalam

eta Tamil'en ikasketak gogotsuago artu eta sakonago erabili zitun, angoak itz egiten zituen izkuntzak ziralako.

Urte bi orrela igaro ondoren, 1897 inguruan, Aita Juan arimen billako lanean asi zan, Kristo'rengana biurtu naiean. Gertaera a, bear ba da makal eta azalekoa izango da gure denporetarako, baiña alaxe izan zan.

Gure Aita Juan'ek bere apostoladutzan ze jokabide erabilten eban? Zeatz esateko, batik ez. Berak ez ekian mixiogaizko ikasketarik. Oraindik izenik be ez eukan gai orrek. Baiña bere berea zan jokabidea eukan. Bere gogoak agintzen eutsana: "Spiritus Dei ubi vult spirat". Jaunaren espirituak nai daben tokian toki egiten dau. Orixe zan Paulo deunaren eta Jabier'eko Frantzisko deunaren jokabidea. Gaurko denporetan beste era batera jokatzen da. Mixiotarako jokabideen gertaera eta ikasketak ordu asko eroaten dautsez gaur arimak biurtzera joan bear izaten daben Kristo'ren bialduari.

Aita Juan Damaskotarra, mixio lanetan, aurrelaria izan zan. Kristautasunera biurtzeak arin eta bixkor egin nai izaten zitun, eta orrek, iñoiz, ba ekiazan ondoren argalak lagaten. "Caritas Dei urget" esaten ekian. Au da, Kristoren maitasunak prisá eukala.

Vijayapuram'ko Mixioan erabilten zan joera, bestelakoa zan. Geldiagoo; ugaritasunari begira baiño sakontasunari geiago lotua; zabalatasunari baiño zindotasunari geiago begiratuta. Belgikarren mixiotan bestera jokatzen eben, eta ba dakigu eurekin ebillala Aita Juan.

Vijayapuram'eko Mixioan, kristau izan nai ebenei, iru illabete-ko ikasketak emoten yakoezan, egunean arroz janaldi bat eskiñiz eta gero, bataio egunerako, jantzia egiteko bear eben eun zuria. Quilon'go mixioan, bestalde, sei aste irauten eban ikasketa orrek.

Gero ikusi al izaten zan Vijayapuram'en kristau gitxiago egiten ziralá Quilon'en baiño. Baiña ango kristauen erabidea sakon eta obeago zala. Etorkisunari begira, askoz obeago zan. Vijayapuram'eko jokabidea, ango kristau barriak ez ziralako lengo siniste eta bizitzara barriro joaten.

Gure mixiotako kristau barriak Padua'ko Antonio deunaren eta Sebastian martiri deunaren zaletasunean gogotsuago ezagutu izan dira beti, Ama Birginiaren eraspenean baiño. Leike jokera ori hindu-

tarren gixuren eta begikoen nortasunak arein erako edo urreragoko izatetik etortea.

Kotagiri'n eukiten genduzan jardunetan sarri erabilten gendun kristau talde barriak lortzeko premiñazko zan diru kontua. Aita Juan'ek ez eban onetan kezka andirik euki. Ez zan asko arduratzen ez diruagaz eta ez etorkisunagaz. Baiña nai ta ez diru asko bear eban kristau barrien gertaeretako, jaso bear zitun eleiz eta kapillentzako, mixio tokian zabaldu bear zitun eskoletarako, dotriña irakasliak ordaintzeko eta bere bizitzan nai ta ezko zitun premiñetarako. Orretarako dirutza bat bear zan, ondasun bat eta ori nai ta ez berak be billatu bear izaten eban. Ortarako Quilon'go gotzaintzan billatu eban iturri ona. Ango gotzai zan Luis Benziger Monsiñorak sarri laguntzen eutsan eta esku zabaltasunez. Gotzain arek ba ekian Aita Juan'ek bere ardurabakotasunean diru kontuzko utsuna asko eukiarren, bere mixio lanerako laguntasun osoa bear ebala, Jaunaren bialdu baten antzeko zalako bere Gotzaingora.

Suizarra zan Benziger Monsiñora, eta bere izeneko liburu argitaldari etxekoa. Bera be gogo andiko eta sutsuko mixiolaria zan lez, benetan maite eban Aita Juan, gizon lez eta mixiolari kezkatu lez. Bear ba da beste bere lagun batzuk ez eben ainbestean aintzat artu Aita Juan'ek eukan diru ardurarako utsune au.

Beste laguntzaille on bat euki eban. Aita Paskasio Eriz, arabarra, sasoi aretan Washington'eko gure etxeko Nausi zana. Aita Paskasio, ain zuzen, urte batzuk lenago, Aita Juan ebillan lurraldetan ibili zan, eta origaitik bere antxiñako Mixio tokiari laguntzen ekian. Dirutza ugaria bialtzen eban Mezak esateko, eta illeroko laguntza bat be bai, Alwaye'ko gure Seminarioko Arduradunaren bitartez.

Beste aldetik, Quilon gure probintzian ez ba egoan be, "La Obra Máxima"ko zuzendari zan Aita Juan Bixente'k diru asko bialtzen eutsan umeak bataiatzeko, ortarako bere aldizkariko umeen bidez batzen eban dirutik.

Aita Juan Damaskotarra begi onez ikusten eben monjaen etxeak eta Aita Lukas'ek. Gure Aita Silverio zanaren anaia zan a. Orrein bidez jantzi ugari artu zitun, bai mezatarako bear ziran edontzi santuak be. Onekin ez dot esan nai Belgikar Aita Mixiolariak Aita Juan

bastertuta eukenik. Baiña arek egiten eban lanerako dana be gitxi zan.

Bere mixio lanetarako kotxe bat eukan, txofer eta guzti. Onek sukaldari be egiten eban. Mixio toki bakoitzean bere dotriña erakuslea eta eskola maixua eukazan. Au da, bere mixio tokia obispadutza bat lez zan, baiña mixio lanetan arduratu arren, beste zaintze eta arduretan sartzen ez zan gizon baten birtute eta akatsez betea.

Gero, mixio toki orreik eratu eta indartzea lortuten zanean, inditar abadeak jaubetzen ziran eurekin.

Zeatz esan da, Aita Juan'egaz eukitako ezaupidetik ataraten zana au da: Ez eukala diru kontuan buruauste sakon sakonik, eta ori izaten da askotan mixio zabalkundetako ostopo bat.

Kotagiri'n maián alkartzen giñanean, igarten neutsan euskaldunon zaletasun eta tengada eukala mai onerako; baiña orrek baiño geiago ten egiten eutsan zigarro txokorrak mai orduan. Ez zan makala erreten. Zigarroan bere lanak eroan al izateko baregarri bat billatzen eban. Mixioko garraztasunak leundu eragiteko pozgarri bat. Ez zan ainbeste arduratzen tabako orriaren ontasunagaz. Zigarro gogor, giartsuak naiago zitun. Ez eukan habanoentzat zaletasun andirik, nai ta Montecristo edo Casinoak izan. Beretzako onenak Birmania'ko zigarroak ziran, moldakaitz egiñak, baiña giartsuak. Jataldeko jakirik onenak lez ziran. Bere giza-soin andian ez eben kalte andirik egiten.

Udako etxean alkar-jardunean gebiltzan artean, bere ekintzetako lurraldea ikustera zirikatu nindun. Baietz agindu neutsan. Eta nire agindua beteteko zoria euki neban 1941 urteko gabonillean Trivandum, Travankore'ko uri nausira joateko aukera euki nebanean. Astirik ez nebalako, ordu batzuk baiño ez nitun igaro bere etxean, bere ostatuko poztasunean.

Dana zan uts eta beartsua etxe aretan. Dana txiro. Baiña ba eukan aberastasun ezaugarri bat: bere kotxe zarraren jaube zan. Eta antxe eroan nindun 'Trivandum' era Napoleon bere txoferrak. Aita Juan'en etxetik ogeitamar kilometro egiten ziran bertara.

Aita Juan'ek, bere etxean, ez eukan besterik oe bat, espartsuzko koltxoegaz, estera bat eta jazarleku bat. Bere Probintzian beartsu frailetu ba zan, mixio lurralde onetako ezerestasuna geitu eban bere etxean. Etxe aurre edo baranda luze bat eukan eta antxe artzen zitun

beragana joaten ziranak. Ango jarlekuak be dotoretasun bakoak ziran. Baiña eleizatik aparte, ba eukan etxe ondoan beste etxe txiki bat. Antxe egozan gizarte laguntzarako tokia eta osategitxo.

Aita Juan'ek ba ekian bere kristau barriak, pobreak zirala eta bataiotik kanpora beste premiña asko eukezala.

Gure Jaunak lez, erriaren errukia eukan. Origaitik, bere lanean asi orduko, bere ardurapekoen bizi neurria aldatzen alegintzen zan, biziera obetxoago bat eskintzeko asmotan. Bertako eta erbesteko elkarte batzuekin konpontzen zan, janari geigarri batzuk lortzeko: ala esne autsa, bitaminak, eta abar. Berak nai izaten eban mesedegarri orrekin banaketak ikusi, orrek poztasun eta amets barriak sortu eraziten eutsazalako.

Osategi andi baten betebearra eratu eban, jende beartsuen gaixo eta premiñak arintzeko. Samaritar onaren antzera jokatu eban onetan. Bere lurraldetan, India'ko beste toki askotan lez, ba egozan gaixo oiak: azal, begi eta sukarrak eragiñak.

Adorez eta gogoz alegindu zan bere eleiztarren eta gaiñekoen makaltasun eta gaixo orreik arindu nairik. Ongille batzuen laguntzaz osategi ori zabaldu eban, lurralde aretako gaixoetarako bereiztuta, eta era askotako botikak zabaltzen asi zan. Danak doan. Monjek arduratan egozan gaixotegietatik botika asko artzen zitun, Gobernuko gaixotegi areitan geratzen ziranak geienbat.

Osategi orren bidez, bere eleiztarren egoera be aldatzea lortu eban. Erri osakuntzan bereiztuteko alegiñak egin zitun, batez be ayurkeda gaixoaren sendagintzan, eta ingurutako sasi medikuekin eztabaidak eukiten zitun osakai eta errezeta batzuen ontasun eta kalteen goraberan. Orrela soiñak eta gogoak osatzen zitun. Emakumeen aurrik ezin egiñaren aurkako osagarri batzuen billa be ibili zan. Ortarako osaki gaitz samarrak eratzen zitun, eta nai ta osakai berezi eta bakanekin osotuak izan, onartuak izaten ziran. Jaunaren zeregiñaren antzera, Santa Teresita'renaren antzera eta beste ebangelilari askoren antzera, Aita Juan'en zeregiña gogoak barri onera ekartea izan zan, soiñei be on egiñez.

Egin neutsan ikustaldian gauza bategaz konturatu nitzan: bere kristauen artean nortasun eta aginpide aundia eukala. Kristauen artean lez paganoen artean be, indar aundia eukan. Jaunaren bialdu

lez eukan nortasunak, beragaz ebillan jenteari bake eta ziurtasun bat emoten eutsan. Errietan, kristauak poliziaren aurka zerbait eukenean, beragana joaten ziran, poliziaren geiegikeriak salatuten. Eta bestetan, polizikoak eurak erritarrekaz zerbait erabagi edo gaindu bear ebnetan, beragana joaten ziran, Juangoikoaren bialdu lez, bere laguntasuna eskatzen.

Esan eikean eleizako aginpide bat eukan antzera, gizartekoa be ba eukala.

Antxiñako gizatalde zarretan, mixiolaria Eleiza eta Laterriaren ordezkari lez ezagutu eta artzen zanetan, gaur Iran'en Ayatollahs'ekin gertaten dana gertatzen zan: aginpide guztia euren eskuetan artzen dabela.


Erraz da esatea abadeak ez dabela sartu bear gizarte eta politika gai-etan. Ori ezin esan beintzat Aita Juan Damaskotarra'gaitik. Politika bidean ondo eratutako gaurko gizarte baten agertzen ez diran egoera askotan aurkitzen zan Aita Juan eta arpegi emon bear. Nik, Neyyatinkara'ko parrokian agurtu eta ikusi nebanean, ainbesteko nortasunez ezagutu eta jaubetuta egoan bera.

Ille batzuk dirala, oker ez ba nago 1979'ko Otsaillea'n, Trivandrum obispadutzako Bikario nausiaren karta bat artu neban, mezak eskatzen. Gotzaiñik barik egoan eleiz barruti ori. Eta Bikario orrek Aita Juan Damaskotarra'ren mixio lana gogoratzen eustan, Jabier'ko Frantzisko Santuak lez an egin eban lan ugaria gogoratu. Baiña, berak iñostan, Aita Juan'ek jasotako eleizak bertan bera etozala, arrakalatu eta jausten etozala, eta bere burukomiñetako bat eurak zelan konpondu eta barriztu zala.

Alaz eta, ango kristautasun ugaria sortzeko egin eban lana, illezkor geratuko da. Betiko. Bere lana emen, lurralde onetan ezagutua izan ba da, ziur egon beste munduan, emengo alegiñak obeto saritzen diran beste munduan obeto goratua izango dala.

Berrogeta amaika urte mixio lanetan egin ondoren, Aita Juan Seminaria etorri zan danok agurtzera. 1946 urtea zan. Oraindik itxura oneko agertzen zan, gogotsu eta gazte. Baiña gudaroste bat ospez beteta lagaten daben Gudalburu baten antzerako alboratzea zan berea. Bere atsedan lekutzat Markina aukeratu eban. Zenbat bidar gogoratu izan dodan bake aldi orrek Aita Juan' engan sartu eta sor-

tuko eban zotifia. Markiña'ko konbentuan, nai eta Ordenako lege eta agindu guztiak beteten alegindu, zortzi bat ordu uts geratuko yakozan bere gelan igaroteko. Ainbeste urte, ain bizi eta lantsu ibili eta igarotako fraile batentzat, ainbeste ordutako gelako geldiuneak, nai ta ez beragarri eta osasunerako kaltegarri izan bear. Osta osta bizitera, bakar bakarrik biziten alegintzera beartuten daben bizitza ori, apostolurik andienentzako be zigor lez, pekatuaren zigor lez gelditzen da, gairanean, durundi lez, "pulvis es et in pulverem reverteris" gogoratzera beartuten dabela. Danentzako bardin.



Aita Diego Jose Zabala

1882 - 1974

Semez Asterrika'koa zan gure okindegian lan egiten eban mutil bat. Eta 1915 urteko Dagonilla'ren 9'an, bere auzoan san Lorenzotzo'ren omenez ospatuten diran jaietara eroan nindun. Morroi oneri gaste deitzen geuntsan, oraindik benetan gaste zalako.

Amaika urte neukazan orduan, eta Villafranca'ko Ikastetxean sartzeko gertakizunetan nebillan. Lekeitio'tik Asterrika'ra zortzi kilometro inguru dagoz. Oñiez joan giñan, Oleta eta Armiña'tik zear, eta Ergaiz baserrian geratu giñan, an bizi zalako nire arreba Maria'ren aiña.

Asterrika'ra eldu giñanean, gasteren auzoan bizi zan andre batek jakin eban ni karmeldarretan sartzeko nebillala, eta Aita Diego'ren argazki bat ekarri eustan, India'n mixiolari ebillala-ta. Andre a Aita Diego'ren lengusiña zan. Nekez aztu neban mixiolari aren irudi a, batez be karmeldar baten lenengo argazkia ikusten nebalako eta gaiñera karmeldar mixiolaria bera.

Laarea'n nire lenengo eskintza 1920'ko Garilla'n egin neban eta Markina'rako izendatu ninduen. Eta ain zuzen antxe billatu neban Aita Diego berbera. Cochín'go gotzai zan Jose Bento Marin Ribeire laguntzen joanda egoan bertan. Azken sei urtetan bere obispaduan lan egiña zan.

Aita Diego markinarra zan eta Markina'n bizi izan zan urte bete inguruan, itzaldiak egiten eta autor entzule lez. Baiña Malabar'en oituta egoanari, ez eutsan atsegiñik emoten Markiña'ko ekintza eta zeregin txiki orrek. Malabar'en aukera geiago eukan bere izlari jator eta ots andiko kezkek beteten. Alaz eta be Markiña'n sermoiak egiten jarraitzen eban, euskeraz jakifia, nai ta amar urte inguruan bere erritik kanpora bizia izan.

Malabar'en izkuntza geiagotan egin eikezan itzaldiak eta bere trebetasuna obeto agertu. An malayalam, ingeles eta portugaldarren izkuntza erabili eikeazan, Cochín'en, jai andietan, portugaldarren izkuntza erabiltera beartzen zalako eguneko sermolaria.

Bere oiñak asko ibilteko egiñak ziran, eta Markiña eta Jemein bat eginda be, lurralde estuegi zan ori beretzat. Neurribagako India obeto etorren beretzat, ango parroki zabal eta kristau erri banatuetan geiago ibili bear zalako.

1928 urtean Puthempally'ko Seminariora eldu nitzanean, Aita Diego Verapoly'ko parrokian errolduta egoan. Puthempally'tik iru kilometrora dago Karmeldarrentzat ainbat oroitzta jator gordeten ditun parroki a. Parroki andi aretako laguntzalle lez egoan, beste bere menpeko eleiz bigaz batera. Lanez betetako toki baten egoala agerzen eban, eta geratu barik bere eleiztarrekana joaten.

Laster emon geuntsan alkarri gure ezaupidea. Gure tokien egokitasunaz baliatzen nitzan berari ikertaldiak egiteko. Zenbat une eder eta gogoragarri egin genduzan alkarregaz Verapoly'n, gure lurraldeko kontu zarrak barriztuten eta bere Parrokiko zeregin eta arduren kezkek alkarregaz erabilten.

Seminarioa, batez be denpora gitxi eroantzetat, toki ertsia zan eta origaitik Aita Diego berbera etorren zan nigana, bere eleiz menpekoetan jai andietan egin bear izaten ziran eleizkizunetan laguntzen joateko eskatzen.

Eleiza orreitako bat Cheranellore zan eta ango jai andien biak Ilbeltzean san Sebastian eta Garillean Santiago ziran. Jai andi bi oneitarako berba emonda neukan berari, urtero laguntzeko.

Aita Diego'k kanoa bat bialtzen eban lenengo Verapoly'ra, andik iru kilometro ingurura egiten zalako eta emendik, beste iru kilometrotara Cheranallore.

Periyar ibai andia igaro bear izaten gendun kanoan, eta gero, oiñez joaten giñan, uraldi eta urbide txikiak igaroten. Geienetan sandaliak kendu bear izaten ziran, toki urtsuak igaroteko, baiña udaldian ba ekiezan ujoldeak egiten eta gure tokira eltzeko beste era batzuk billatu bear izaten ziran.

Orrelako goraberetan laster igarten zan Aita Diego'gan bere indar eta trebetasuna eta ostoporik andienak gainduteko eukan erreztasuna. Bera ez zan oiñuztuten toki urtsuak igaroteko eta ez eutsan ardurarik jantzia bustita be. Batzutan izerdi likiñetan geratzen zan eta eleiz jantziak be izerdiz beteta lagaten zitun. Baiña Aita Diego'k gogo onez eroaten eban dana eta etxera etorri ta aldatu eta gertu

egoten zan beste ainbeste eginbearretarako. Ez zan bigun eta mirriña, nai ta bere fraillekidiekin laguntzalle on ona izan eta baita, esate baten, bertako jente guztiekaz be.

Jai oneik ondo etorten yatazan, Seminariotik kanpora egiten nituzan zer ikusi andiko jaiak ziralako. Eta esaten dana: Atsegíñez danetan azteriak ez dabela erreten, nik be egi dala esan neike. Erri jai oneitan, eleiz oitura eta jairik andienak egin bear izaten genduzan: Meza nausia, al zan ospe, soíñu eta zaratarik andiengan; Aita Diego'ren itzaldiak danak ipinten zitun ao bete pozez; txaranga; zarata itzalak ataraten zituen dunbotzak; su ziri eta gertuak; deunaren irudia igaro bear zan tokien dotoretze eta apainketa eta abar. Inditarrak santu alai eta ikusgarriak nai dituez; oraingo onetan, Clavijo'ko gerrateko Santiago Moroiltzallea lez, edo ta san Sebastian, tixura ederdun erromatar martiri gaztea.

Jaia amaitutean, Aita Diego'k, eskupeko lez, sobretxu bat eskin-tzen eustan meza diru eta laguntzako ordaiñez, onetan ibildeuneko laguntza eta korokoa sartuta. Ezin laga edo ukatu eskupeko ori, berak esaten eban lez jaietako Presidenti jaunak (alaxe esaten da portugaldarren izkuntzan) ordaindua zalako. Presidenti orren kontura izaten ziran jai guztiko gastuak.

Aukeratzeari ospea emoteko, jaia amaitzen danean aukerutzen dan Presidenti orreri koroia ipintea egiten da, bere kontura izan bear dabelako urrengo urteko jaiak eta aurrez ortarako aurreratzen asi bearrean aurkitzen dalako.

Norbaitek esan lei, "ad quid perditio haec?", au da, zetan dator galbide ori? Mundu guztiak dauka eguneroko bizi oia eteteko esku-bidea, nai ta orretarako eleiz jaiak aukeratu. Orra gure erantzuna. Batez be India lako errietan orrelako jaien premiña geiago igarten da, erlejiño kutsuzko jaien ugaritzea beste errietan baiño arduratsua-go billatu bear dalako.

Aita Diego'k, Verapoly'en egoanean, bederatzi milla eleiztarren serbitsua bere gain eukan eta beti egoan lanean, deitzen eutsen toki guztietara joateko gertu. Bere lana eta bere bereiztasuna geiago arduratzen zan Eleizaren iraupenean, kristau barriak egiten baiño. Orretan Jaungoikuak, premiña eta gaitasunen artean zabaltzen ditu bere mesedeak. Verapoly'ko parrokian ba egoan beste Aita laguntzalle bat

be, baiña Aita au Mixioko ondasun arduraduna be ba zan eta parrokiari soil-soilik begiratzeko betarik ez eukan. Origaitik, Aita Diego'k beste zeregiñik ez eukan lez, bera gertuten zan gau ta egun bere eleiztarrei laguntzeko.

Gizon bizia zalako, bost sei kilometro ibiltzeak ez eban nekatuten. Aita Diego Cochín'go obispaduan egon zanean, ango abade batek esaten ekian, norabaitera joan bearretan autobusa beteta billatzen ba eban, ez zala kezkatuten, oiñez joateko beti gertu egoten zalako. Ontaz au esan nei. Bein Mundakayam'eko parrokitik iru mixiolarik urten eben. Mundakayam toki landatsuan egiten zan eta aldatz goran joan bear eben mendian egoan Permade'ra, amasei bat kilometro urrunago. Ara eldu ziranean, Aita Diego'ren lagun biak nekatuta etzan ziran ainbeste bideren nekez. Baiña txakur bat urreratu yakoen zaunkadaka, atsedean artzen laga nai-ezta. Ori ikusita Aita Diego'k arri bat artu, eta len ibilli barik ba egoan lez, txakurraren atzetik joan zan, a uxatzen.

Gaitz izango litzake Aita Diego'k, bere mixio lanetan, zenbat kilometro egin zitun jakitea. Nire ustetan, Mixiolarien Marathon batentzako urrezko domiñarik ba lego, India'ko mixiolarien artean Aita Diego'k eroango leuke domiña ori.

Bakarrik errezago ibiltzen zan, lagun makalekaz baiño. Ala koko tokietan, nai lautadetan, edo basoetan edo Kerala goi aldetako ta baratzetan. "Beati pedes evangelizantium pacem". Zorioneko bakearen ebanjelari diran oiñiak.

Alaz eta, izatez gogor eta soñez indartsu agertuarren, arduraren bat bere kontura artu edo erabagi bear ebanean, Aita Diego bildurtia zan beragaz. Nausi izan baiño naiago eban menpeko gelditu. Parroko izan baiño, laguntzaille naiago. Eta ori bizi guztian. Eleiz laguntalde guztien serbitzuan egoten zan, bai eta monjaenean be, baiña beti laguntzaille lez, bere Nausiak artu bear zituen erabagietan sartu barik, arriskatu barik, eta bere ardurako zeregiñei ez yagokozen gauzetan sartu barik. Berak ondo ekian Jaunak morroi lez egiten diran serbitzutatik zear erabilten ebala.

Ordenari eta Eleizari eskintzen eutsan etenbago serbitsu orretan, bizi modu latz eta ereduzkoa eroan eban Aita Diego'k Indiara 1908

urtean eldu eta Mundakayam'go Irugarren ordenako monjen kapillau lez 1974 urtean il arte.

1908 urtetik 1920 bitartean, gure Ordenak Ernakulam'en daukan konbentuan egon zan eta Cochín'go obispadutzaren mendean.

Urte bete España'n igaro ondoren, 1921'tik 1946 bitartean Verapoly'ko konbetu ta parrokian egon zan eta gero, 1974 urtean il arte, Mundakayam'go parrokian. Larogeita hamar urte beteta gero be, malayalam izkuntzan egiten zitun sermoiak bere urteak emoten eutsen grazi eta indarrez.

Aita Diego antxiñako eratan gertutako frailea zala esan geinke, bizitza oiari dagokionez beintzat. Era bereko dira gure ordenako fraile asko, gaur mundu zear banakatuak. Eurak ez ziran Pastrana'ko gogortasunez ezi, baiña bai Larrea edo Markiña'n gizaldi onen asieran zainduten zan espirituzko gar eta oiturretan. Malabar'eko mixiolarietan ikusten da ori. Eurentzako gure Araudia eta Erregela, nun nai eta edozein girotan gertatuta be, ontasun bide ziran eta gaizkapererako oiñarri.

Geiago zeaztuta, ziur nago gure Ordenako Araudiak eskatzen daben otoitzako ordu biak, Aita Diego'rentzako, etxean nai ibillertan, bere bizitzako gidaririk onenak zirala. Eta ori, esan neike, nik ez nebala sekula bere biderik jarraitzerik nai izan.

Sekula ez eban tabakorik erre eta ez dot uste gogorik euki ebanik be. Kurutzeko egunetik Berbizkunde Paskorarte barau egiten eban, mixio tokian bertan be. Ezin nei esan zenbateko zeaztasunez, baiña bai egiten ebala.

Aragirik jaten be ez neban iñoiz ikusi. Jaietan be aragia bastertu egiten eban bere janarietatik. Egia esateko, nire ustetan ez eban orrek ainbesteko ukatzerik eskatzen, arrain ona gendulako eta beste janari atsegin asko.

Gure Ordenako Generala zan Aita Lukas, Puthempally'ko Seminariora etorri zanean, jantzi zuria erabilteko eskubidea emon euskun. Eta bera izan zan eskubide ori artu ez eban bakarra.

Ango beroak Generalari ataraten eutsen izerdia eta urratuak ikusita, Puthempally'ko Aita fraileak eun arin eta zurizko jantziak egin eutsezan, ango giroa errezago eroan al izateko. Generalak ikusi ebanean tropikoetan jantzi zuriak erabilteko premiña egoala, Erro-

ma'ra biurtu ta beriala emon eban jantzi zuriak erabilteko eskubidea, gaixo nai osasuntsu egozantzat.

Ordurarte, gizaldi batzuetan, mixiolariak jantzi nabarra erabilten eben, nai ta Europa'n baiño arintsuagoa.

1924 urtean gertatu zan ori. Esanda lez, Aita Diego'k izan zan eskubide orregaz baliatu nai izan ez eban fraille bakararra. Origaitik eta bere beste gogortade batzukaitik, askok Fray Pacomio deitzen eutsen adiskidetasunez.

Orrelako izate eta nortasun giartsudunak Markiña aldeko eta ingurutako mendi arritsutatik sortuak dirudie. Aragia menperatzen jakin, eta mixiolari birtute eta osotasunez sanjuandar gogozko bide zabala erakusten dabelako.

Aita Diego'gaz, geroago be, sarritsu alkartzen nitzan, nai ta bere biziaren azkenetan gero ta nekezago alkar ikusi. Beti gendun zer esan. Azkenengo ikertaldia 1973 urtean egin neutsan, Kuwait'etik Kerala'ra joan nitzanean "Christian Sociology" liburua barriro ataratego. Zearo nekatuta egoan eta berbarik be ezin eginda billatu neban, inkesa eta sispuruz beterik izan ezik. Erritik alboan egoan konbentu bateko baster gela baten bizi zan Mundakayam'en, bakar bakarrik. Larogei ta amar urte baiño geiago eukazan.

Aita Diego larogei ta amabi urtedun il zan, gorputzaren biguntze eta etenez, baiña oraindik burua argi. Zerbait obetotxuago zainduta, bear ba da pixkat geitxuago ibilita, beste urte batzuk geiago bizi al izango zan.

Bere egitura gogorrari eta sendoari esker, Malabar'eko tropiko giroari moldatu zan, atsedean eta oporrik ezetarako artu barik. Geldi geldi ango gaixoen arrisku eta kutsutatik azkatu zan. Gitxik lortu eben zori ori.

Mixiolari barriak laster igarten dau bere soiñean tropikoko giroen aldaketa, batez be azal, tifus eta urdaillean jatekoak eragiten daben arrada.

Mixiolari asko biurtu bear izaten ziran euren jaioterrira, urte batzuk egin orduko, orrelako gaixoen mende.

Bear ba da soiñez gogorrak diralako, euskaldunak izan dira sendoen egoera ori gallendu dabenak eta Aita Diego izan zan euretariko bat.

Bere azken urteetan zain aundituen mifia eukiten eban, baiña ez zan origaitik larritzen.

Irurogei ta amar urte beteta gero, etxeko mailladiak jeistean jausi egin zan. Mailladi gogorak ziran. Alaz eta be berak esaten eban ez zala jausi. Gorputzaren alborakada oartzean, berak jaurti ebala bere burua aurrez aurre.

Bere gertaerak kontatzen asten zanean, bere errialdeko probalarien itxura agertzen eban. Azkenengo untzerarte etsi nai ez da ibili eta orduan be aposturen bat egiteko gertu. Orrelakoxea zan bera bere gauzetan.

Bere azkenerarte iru frailen gorlari zintzo izan zan: Bernardo Arginzoniz Monsiñora, Aita Juan Bixente eta Aita Aureliano zitun bere begikoen.

Beti be gizon gogor eta aztura onekoak ziran bere lagun.



Buenaventura Arana, Monsiñora

Vijayapuram'go Gotzaiña

1880 - 1958

India'ra etorri aurretik ezagun yatan Buenaventura Monsiñoren izena, batez be "La Obra Máxima" eta bere inguruan ebiltzanen agerbitatik.

Berbera, aurrez aurre, Europa'tik gu etorri eta Seminaria Aita Juan Jose agurtzera etorri zanean ezagutu eta ikusi neban. 1928 urteko Urriaren erdi inguruan zan au.

Aldi aretan Aita Buenaventura Verapoly'ko Mixioko Errialdeko Bikario zan.

Gogoan daukat euskeraz agurtu nindula eta lenengotik biotzak irabazteko eukan maitasunez eta era onez. Bere irribarre zabal eta zinduak geiagotan ikusteko gogoz lagaten eban bat. Eta ni, ain zuzen, gure bizitzaren gertabearrez, bere inguruan sarri alkartzera lotuta gelditu nitzan.

Lenengo urtetan ez neban askotan ikusi, bere etxea, Bikarioaren etxea, Kottayam'en egoalako, Seminariotik larogei kilometrotara.

Ordurako aoz ao ebillan mixiolariantzako Obispadutza barri baten erakundea. Eta egin be alaxe, Verapoly'ko Gongotzaitzari zati bat kendu eta Vijayapuram'go eleiz barruti lez eratu zanean.

Mixio barri orretako buru lez izen bat baiño geiago aitatuten ziran, baiña Buenaventura Arana'rena zan geien izentatzen zana. Eta alaxe 1930 urtearen erdi aldean, bere izentatzearen zigurtasuna eldu zan, eta mixiolari guztiak pozez artu eben aukeratze ori, pozik egozalako Aita Buenaventura Artzai barri lez euren artean eukiteko.

Baiña poztasan ori laster zalantzan geratu zan. Aukeratu eta egun gitxitara kotxeko ez-bear bat euki eban Ernakulam'go konbentuaren inguruan. Burua odolez beteta eroan eben gaixotegira. Baiña ez-bearra itxuraz andiago izan zan benetan zan baiño. Bekoki eta buruan emondako puntada batzuekin dana konponduta geratu zan. Gure poza aizeak eroango ebalakoan gengoan. Baiña berberak batbateko ori eroapenez artu eban, geiagoko barik. Jaungoikotiarra zan.

Geienetan, bertakoak ez ziran gotzaiñen sagaratze edo konsa-

gratzea bakoitzaren sorterrian egiten zan. Ba egozan orretarako errazoiak. Baiña Buenaventura Monsiñorak ez eukan bere errialdera geiago biurtzeko asmorik, eta naiago izan eban berea Kottayam'en egitea, Vijayapuram'go obispadutza barria egoan errialdean.

Orrek jai andi bat ospatzeko bidea emon eban eta danen aldeetik gogo onez artua izan zan. Ori zala ta Aita Juan Bixente'k "La Obra Máxima"ren zenbaki berezi bat atara eban.

Buenaventura Monsiñora, ordutik, Obispadutza barri ortako Artzai zan. Egal batetik bestera ezagutzen eban, tokiz toki eta bertako parroki askoren arduradun egona zan. Egia da, len lez gaur be, be-maillako eleiztarrez osotutako obispadutza dala, baiña ez al dira arima guztiak bardiñak Jaungoikuaren aurrerako?

Andi eta txikiak, lenengotatik, benetako maitasun eta lotsaz artu eben Buenaventura Monsiñora. Verapoly'ko Gongotzaintzan baten ziran zeregin guztien arduradun izatetik igaroa zan: parroko, artxipreste, Ondasunen arduradun, Errialdeko Bikario eta Bikario orokor. Baiña beti, gain gainetik eta berezien, arimen artzai izan zan.

Bera gotzai izentatu eta urte batzutan ez dot uste beragaz artu-emonik euki nebanik. Baiña 1934 urtean barrero asi giñan Angel Mari Monsiñorak Verapoly'ko artzobispadutza laga ebanean, eleiz barruti orrentzako beste egoera bat asten zan, errialde berbertako gotzain laguntzalle barri baten izentapenagaz, "cum iure successionis", au da, ondorengotzako eskubidez.

Artzobispadutza laga ebana bear ziran gertapenak egiten ebillan, bere ardura ori Jose Attipety monseñorari lagateko, eta bera bere Burgos'ko errialdera biurtzeko asmotan, gotzaingoko kontuak garbi laga-ta.

Angel Mari Monsiñorak gure Seminarioko erretoreari eskatu eutsan, bat-bateko bere idazkari lez ni beregana bialtzeko, bere ardura eta zeregiñen aldaketa egin bitartean.

Onak ardura barri bat ekarti eban niretzako, Gongotzaingoko diru kontuetan nik uste baiño sakonago sartzera beartu nindulako.

Buenaventura Monsiñora Verapoly'ko goraberekin sakon arduratuta ebillan, bertan eta bertako ondorengo lez zan Verapoly'ko bi-zitzaren bitartez ango ardura eta eginbear askoren zuzendari izan zalako. Biok euki genduzan jardunetan, Gongotzaintza orretako egoe-

ra agertu bear izan neutsan, diru kontu eta beste jakingarriak jakin eraziz. Berak ez zitun ezagutzen. Arrituta geratu nitzan berak esan eustanean, nai ta Verapoly'ko Bikario orokor izan, ez eutsezala banakaritzako kontu asko jakin erazi edo agertu, nai ta kontu orreik Vijayapuram'go gotzai izatean berari ikutu egiten eutsenak izan.

Gongotzaintzako kontu bereziekaz Angel Maria Monsiñora ertsia zan eta ixil eta berekorra. Bear ba da pentsatuko eban barruko gauza asko agertzea ez zala onurakor, eurak jakin eraztean Gongotzaintza guztiari kaltegarri jausi eikeazalako.

Gure errialdera etorri nitzanean 1935 urteko Bagillean, Angel Mari Monsiñorari laguntzen, aldi aretan gure Probintziko Nausi zan Aita Ezekiel'en deia artu neban, Begoña'ra joateko. Eta ni arrituta geratu nitzan berak esan eustanean Buenaventura Monsiñoraren karta artu ebal, ni bere Obispaduko Bikario orokor lez izentatzeko eskatzen.

Aita Ezekiel'eri erantzun neutsan, apal apalik, ez neukala ortarako bear zan gertaerarik, garrantzizko eta kontu andiko arduratzat neukalako zeregin ori. Ogeita amaika urte neukazan bakarrik eta malayalam izkuntzarik be ez neban ikasi bearke zan aña, ez eta beste gauza askorik be itxura baten zeregin ori ondo beteteko. Orixe berberori agertu neutsan Buenaventura Monsiñor berberari be, Angel Maria Monsiñora Burgos'en agurtu eta urte berbertako Dagonilla'n Malabar'era biurtu nitzanean.

Urteen urtetan, eta batez be Seminario'ko Ondasun arduradun izentatu ninduenetik ezker, 1940'ko Jorrallean zan ori, artu-emon asko euki nebazan Buenaventura Monsiñorakin.

Munduko Bigarren Gerra bitartean, alkarri laguntza asko eskatu eta eskintzen geuntsazan, batez be Europa'tik eta Ameriketatik meza laguntzak alegintzen, "La Obra Máxima"ko diruak alderatzen eta abar. Gogoz eta arretaz ikusten neban Buenaventura Monsiñorak bere obispadutzan erabillan aldaketa sakona, 1931 asi eta 1950 bitartean. Berrogei ta amabost-eleiza baiño geiago jaso zitun, eta eskola barriak zabaldu. Bere eleizbarrutiko katolikoak bidartu egin ziran. Elkarte eta gizon artean egon ziran krisis batzutan, sentzuz eta jakituriz esku artu eban, beste naikeririk agertu barik.

Aita Juan Bixente'k asko be asko lagundu eutsan Buenaventura

Monsiñorari bere obispadutzaren erakundean. "La Obra Máxima"ko sarrerarik geienak bere eskuetan lagaten zitun. Obispadutza barri ori diru barik asi zan eta diru premiñan egoan. Egia esateko Verapoly ia aldizkari orren laguntza barik geratu zan. Orren aurkako asarrea agertu eban Angel Mari Monsiñorak, bera be karmeldar izanik, aldizkari orren laguntzaren eskubidedun zala esanez. Baiña ordurako Verapoly ez egoan Nabarra'ko San Joakin errialdeko frailien menpean.

Nire gogoetei jarraituz, bizirik daukadaz nire gogoan Buena-ventura Monsiñoragaz Davicolam'go eleizaren etxean euki nituzan ikustaldiak.

Kapilla ori Munnar'ko parrokiaren mendeko zan, eta bi milla metrotako goi aldetan egoan eta sarri aukeratzen eban toki ori Buena-ventura Monsiñorak bere aterpe lez. Sarri deitzen eustan egun batzuk alkarregaz an igarotera joateko. Nik pozez artzen neban dei ori eta onartuz beragana joan be bai eta egun pozkarri batzuk an igaro, giro atsegin eta ederretan. Goizean amalau gradu eta arratsaldetan, udan, amazortzi egoten ziran an.

Gela txiki bi eukazan etxeak, Gotzaiñarenaren alboan, baiña dotore egokituak. Ikustaldi bakoitzean amar egun inguru igaroten genduzan lez, ez zan gertaera asko egin bearrik egoten. Ez giñan joaten ikastera, denporaldi alai eta bakezko bat igarotera baiño, karmeldarron ordu batzuk beteta. Etxea bakartadean egiten zan, ingurutako barik. Egunero urteten giñan goi aldetara ibillaldien bat egiten. Ibillaldi oneitan. Buenaventura Monsiñorak bere mixio experientziak agertzen eustazan, bai eta mixiotakoak ez ziranak be. Jakingarriak danak. Asko ikasi neban jardun oneitan.

Berriz'en jaioa izanarren, ez eutsan sukaldariari ospe andirik eskatzen mai kontuan. Ez eukan orretan ardura andirik. Suku pixkat artzen eban, eta gerokoa agertzen zanean, edozer izan da be, jaten asi baiño len bere zigarro txokorra ataraten eban, kafea artzea gerorako lagata. Beretzat zigarroa maitagarrigo zan beste janaria baiño. Inguruko bananak jaten genduzan, eta kafea, baiña esneagaz. Beste zeregin edo egon bearrik ez ba egoan, errusitar tea artu ondoren, laurak inguruan, gure ibillaldia egiten gendun. Ez giñan urrunera joaten, zazpirak aurretik etxera biurtzearren. An esaten ekien katamotz

gaizto bat ebillala inguru areitan, eta bere eskutalekua inguruko basoan eukala eta kontuz ibili bear zala. Ba genkian biok katamotzak gizonandik iges egitekoak izaten dirala, eta arriskuan ikusi edo inguratuta dagozala konturatu ezik, ez dakiela gizonaren aurka asten. Elefante batzuk be agertzen ziran inguru areitan, baiña egunez dana baketan ikusten zan eta gauez etxean arrisku barik egoten giñan.

Gure ibillaldietan euskal folklore asko be gogoratzen gendun. Monsiñorari atsegin yakozan karlisten denporetako gertaerak gogoratzea.

Gaztetatik arnas artzen gaitasun pixkat igarten eban Monsiñorak, eta ango giroak zerbait arintzen eutsan ustea daukat. Zigarroak ez eutsan onik egingo, ezpai barik, eta origaitik bere lagun osagille bateri itaundu eutsan zearo laga bearako ete eban zigarro erretea.

Osagilleak umorez esan eutsan, laga ezkeru, beste amabi urte bizi eikeala, baiña zirikalari geitu eutsan, erreten jarraitu ezkeru, dozena bat urte biziko zala.

Monsiñorak umore ona erraz artu eta iruntsiten eban, bai eta sornatsu erantzun be, baiña beti alkar maitasun eta lotsaren barruan.

Bizitzako gauzak ez eutsen ardurarik emoten. Gotzai lez apala zan eta lagun lez ondo artzen ekiana.

Devicolam'en bizi giñala illuntzean sarri agertzen ziran tximifio taldeak, jateko billa. Andi eta baltzak ziran eta etxe ingurura etorten ziran. Baiña gu ikusi orduko iges egiten eben.

Orduko gertaera bat esatera nua.

Aldi aretan Cochín'go gotzai zan Alvernaz Monsiñora, geroago Goa'ko Aita-guren edo Patriarka izan zana, eta orain bere erri dan Azores ugartean, gure etxe inguruan bizi zan. Lagun andi giñan eta sarri egiten geuntsazan ikustaldiak.

Jai egun baten beragaz jatera deitu eustan. Bazkari bitartean, aragia jaten gengoazala, itandu be bai: Aragia zelan dago? Nik erantzun, ona be on zala, baiña zerbait gozoegi. Eta berak irritsu geitu: Tximifioen aragia jaten gagoz-eta!

Ingurutako ingles-inditar ziran eiztari batzuk, abere orrein aragiaren kilo batzuk eskiñi eutsezan gotzaiñari eta euren txuletak jaten gengoazan. Ez dago ezpairik tximifioen aragia jateko on eta atsegina danik, baiña eurena dala jakinda zerbait atseratu egiten da bat

ontasun ori ezagutzera, eta orrelako janariak barriro jateko gogo gitxi sortzen da. Buenaventura Monsiñorak algaraka barre egiten eban ori esan neutsanean, eta gure ibillaldietan tximiñoak ikusten genduzanetan, gure lagunak deitzen eutsen.


India'n zeoro galerazota dago tximiñoak iltea, abere sakratutzat daukezalako, euren jainkoen aragi biurtzetik sortuak: *Hanuman*. Egia esateko, India'n egindako eta bizitako denporaldi guztian, auxe izan zan orretazko gertaera bakarra.

Buenaventura Monsiñorak 1946 urtean laga eban, edo obeto esanda, bere ardura laga naia agertu eban, baiña 1950 urterarte zai egon bear izan eban. Urte orretan izentatu eutsen bere laguntzalle lez Ambrosio Abasolo, gaur bere errialdean erretiratua, nire ikaskide izan zana. Geiago ez giñan Devicolam' era biurtu, beste udaldietako denporaldiak alkarregaz bizitera. Alaz eta sarri ikusten giñan, batzutan Kottayam'en eta bestetan beste nunbaiten.

Monsiñora, zaar atsedena artzen eta biziten, ez zan bere jaioterriira joan. Ortarako ba eukazan tokia emon nai eutsen konbentuak, eta "La Obra Máxima" berberak be zartzaro egoki bat igaro al izateko laguntasuna eskintzen eutsan. Naiago izan eban Kottayam'en mixiolariak euken etxean sartu eta antxe bizi umil eta baketsu, egun baten fedean sartu eta goiko egiak erakutsi eutsen kristauekin batean.

1955 urtean, bere abadegintzako urrezko eztaiak eta India'ra joan zaneakoak ospatuteko, Malabar errialde guztia batu zan bere inguruan, poz eta atsegiñez beteta. Eta era berean, il zanean be, Malabar erri guztia batu zan bere alde otoiñz egiten, bere omenez egin ziran illetetan.

Kottayam'eko Artzai Onaren eleizan obiratuta dago eta antxe dago azken berbizkundera itzaroten, bere laguntza eskatzen daben ainbat kristauen omenaldia artuz batera.



Aita Juan Bixente

1862 - 1943

Aita Juan Bixente, Mixiolarien munduan, oi ez dan nortasun baten jaubedun lez ezagutzen zan. Benetan Jainko gogoz betea, gogo orren indarrez atara al izan zitun mixio lanetan, bestela aurrera eroan eziñekorzat etsiten zituen asmoak.

Arimen gaizkapen edo salbazioari ikutu egiten eutsen ekintza guztietan sartzen zan bere apostoladutza.

Bere apostolu bizite ori ezagututa, ondo datorkio berari "Jainkotar kezkatia" deitura.

Bere apostolu gogoia bere gorputzean ezin sartu eikeala be ba irudian.

Gizon lez begiratuta be, ain arrigarrizko doai bereziz kutsututako gizon onek, bere bizitzako izar eta ipartzat, mixiolari asmo eta ametsa erabili zitun.

Aita Juan Bixentegaz eukitako artu emonak agertu naiean jarten naizenean; ba dakit asko ezin neikela esan, ni neuk oartutako lez, beragaz batean lan egiteko aurkera eta duintasunik euki ez nebalako.

Nire gomutetan oker ez ba nago, Larrea'n nobizio nitzala ikusi neban lenengo aldiz Aita Juan Bixente. 1920 urte inguruan zan, berak India'tik azken ostera eginda gero.

Eguerdian, bazkal orduan, jan tokian sartu zan, ezaugarri eban bere bizar luzeagaz, eta gu frailekiok berari begira adi-adi geratu giñan.

Gero, atsedean orduan, Aita Maixuak esan euskun nor zan Aita Juan Bixente. Bai eta Indietatik etorri zala eta mixio garreko aldizkari bat sortuteko asmotan etorri zala.

Gure Aita Maixua, Ordena barruan, errialdeko erabagitzaille zan, eta Aita Juan Bixente bere asmoak berari agertu ta on iritzia eskatzen etorran, Begoña'n Erabagilleak euki bear eben batzarrean.

Gure Aita Maixuak ez eban baikortasun andiz asmo ori ikusten, baiña berak agertu eban, arelako mixio gardun bateri gaitz zala Jau-naren aintzarako asmoz agertzen eban eskari ori ukatzea.

Gaiñera Aita Juan Bixente ez etorran esku utsik. Ez etorran diru eskale. Baimena nai eban berak, baimena bakar bakarrik. Diru kontuetarako ba eukazan Iruña aldean laguntzaille onak.

Geroago, urrengo ikusi neban aldian, Gazteiz'en izan zan, 1923 urtean, Seminarioan mixio gogozko itzaldi bat emotera etorri zanean.

Ordurako bere aldizkaria ez zan ametsa bakarrik. "La Obra Máxima" España guztian sartzen eta saltzen asia zan, eta bere nortasuna andia zan. Berak asi eban mixio zalatesunaren zabalkundea indarra artzen asi zan askoren artean.

Au daukat gogoan: Gorpuzti eguna zan. Eta bera konbentuko ibildeunean sartu zan, kapa zuria soñean eta kandela eskuetan, "Sacris solemnibus" eta "Verbum supernum" kantatzen, ikasle baten pozez eta nobizio baten fede garrez.

1928 urtean India'rako aukeratu arte, ez neban beragaz artu emonik euki. Oraindik Teologi'ko irugarren urteko ikasle nitzan Begoña'n. Aita Juan Bixente, gure Mixio aldeko begirale zan lez, beragana zuzendu nitzan nire osterari buruz zerbait jakiteko. Iruña'tik erantzun eustan, nire jakin naiak ase eta aolku batzuk emoten.

Argazkiak atarateko makina bat eskatu neutsan. Oneri buruz erantzun eban ez ebalara orren premiñarik ikusten, ba ekialako bai Mixio etxean eta bai Seminarioan ba egozala. Baiña India'ra eldu eta premiña ori bete barik egoala ikustean, beriala idatzi neutsan. Eta berak erantzun "La Obra Máxima" gertu egoala orrelako eskari bat ontzat artzeko, beti be Mixioen onerako ba zan.

Bakoitzaren jantzien goraberan esaten eban, egokiago zala algo-doe eta franelaz nastutako eunekin egitea, algo-doi utsezko baiño, nai eta beroagaz gertatuta be izerdia obeto batzen dabelako, otzikadarik artu eragin barik.

Orrela eun mota ori Bilbo'n erosi eta nire barruko jantziak egin eustezan, eta eurekin haliatu nitzan iru-lau urtetan, India'n. Agindu eustan, baita be, erloju edo orduari bat erosteko bear neban dirua bialduko eustala.

Bere kontseju lez esaten ekian, India'n gauza asko eroateko premiñarik ez egoala: an be, ordainduta gauzak errez lortzen ziralako. Bestalde niretzat ondo etorriko zirala batu al neikezan eskupeko eta amoiñak, laguntzak.

1928'ko Irailla'ren 14'a zan. Kurutzeko eguna. Gure Araudi barriak lege indarra eukiten asten ziran egunean. Begoña'ko konbentuko atadian negoan, nire maletak eskuetan nebazala, India'rako urteteko. Aita Ezekiel nigana etorri zan eta nire maletatxua ikusteko gogoia erakutsi eban. Ez egoan bertan besterik Brebiarioa, Kristoren Antz Bidea, ingeleserako gramatika bat, Balmes'en Irizpidea, Eguzkiza'ren Loretako illa, bizarra kentzeko makinatxoa eta birritan jantzi aldatzerako bear ziranak. Berak, ori ikusita, arrituta lez esan eustan: Au bakarrik daroazu India'ra? Aita Juan Bixente'k gai onez idatzi eustana agertu neutsan. Orrez gafiñera, umoretsu, beste au geitu neutsan. Alaz eta Nobiziadutzan esaten euskuela fraile batek konbentu batetik bestera joateko, ez ebalá besterik eroan bear Brebiarioa baiño.

Esaera orregaz agurtu neban Aita Ezekiel ,garai aretan Nabarra'ko San Joakin errialdeko frailien nausia, eta bere onespina artu neban.

Ez dakit zeñek ordaindu eban India'rako gure osterá. Ziur nago ez zala izan "La Obra Máxima". India'ra elduta gero jakin neban "La Obra Máxima"ko banakaritzat Mixio alderdiari laguntzen eutsala bakarrik eta Seminarioak bere bestelako sarrerak bear zitula.

Aita Juan Bixente'ren asmoetan, Seminarioa beste arazo bat zan, Mixioekandik kanpora, nai ta Seminarioa eta Mixioa biak gure Errialdeko Aitatasunaren menpean egon. Bestalde autortu bearreko da, Seminarioak, beti be, Verapoly eta Vijayapuram'go Mixioak baiño laguntasun zabalagoak euki izan ditula. Ori orrela izanarren Seminario'ko Irakasleak, alkarren gogo onez, "La Obra Máxima" sendotu nai izaten gendun gure idazlanekin, eta Aita Juan Bixente'k, bere Zuzendariak, ondo ordaintzen zitun lan orreik, batez be argazkiakin bialtzen ba ziran.

Ni India'ra eldu nitzanean, Aita Juan Bixente'ren oroitza bizi bizi egoan an. Askok gogoratzen eben, bai Ernakulam'en eta baita Kottayam'go Mixioan be. Argi goiar bat lez igaro zan, argi eta zerutar maitasuna lagata.

Esaten euskuenez, eldu ta urte bete orduko asi zala bere sermoiak Malayalam lako izkuntza gaitzean egiten. Guk Aita Juan Bixente'k India'ra eldu eta irugarren urtean idatzi eban gramatika batetik ikas-

ten gendun izkuntza ori. Seigarren urterako "Promptuarium Liturgicum Canonicum" idatzi eban bertako abadiantzat. Oraintsukoak ziran Ernakulam'go irarkolan egin zitun barriztazeak. Angoen artean oraindik gogoan eukezan bere itzaldiak, Malayalam izkuntzan; bere ibillaldi luzeak, sandalia barik, oiñutsik.

Malabar'eko mixio ekintzetan bizitasun eta gogortasun bereziak erakutsi zitun, gogo eta soñez. Penagarri da India'n amabi urtetan bakarrik egon izatea.

Jaunaren naiak aztertu ezifñiak dira. Baiña uste dot egoki izan zirala berak Bernardo Arginzoniz Monsiñor santu aregaz euki zitun eztabaidak, España'ra biurtzera makurtu ebenak. Nire ustetan, eztabaiden sakonetan, bitsuen zintzotasuna egoan, bardin samarra zan bitsuen zintzotasuna.

Oi dan lez pentsatuta, Aita Juan Bixente izan bearko zan Gongotzaingoan Aita Bernardo Arginzoniz Monsiñoraren ondorengo. Baiña Jaunak naiago izan eban mixioteko zabalzailletzat autu eta berrari esker ainbatek urten eben mixiolari lez lurralde ezezagunetara. Ori izan zan Jaunaren naia.

Aita Juan Bixente'k alegin biziak egiten zitun "La Obra Máxima" aldizkari lez egokitzeko, eta berak mixiolarietara eskatzen eutsen, lanak eta argazkiak bialtzeko aldizkaria bizirik zaindu al izateko. India'ra eldu eta bigarren urtera nik be zerbait idazten asi bear izan neban, ainbesten artean bakarrik ez gelditzeko be. Mixioko kondaira gaiak aztertzen asi nitzan. Aita Juan Bixente'ri ondo iruditu yakon eta nire lana zerbait konponduta atara eban.

Ordurako asiak giñan Soziologi gaiak erakusten, batez be India'ko gizarte egoerari egokiozanetan. Nai ta ni makal izan, errialde aretako eleiz eta gizarteko problemak agertzen asi nitzan. Aita Juan Bixente'k orraztu egiten zitun nire lan batzuk eta orrelaxe agertu ala atsegin jausi ziran irakurleen artean. Aita Juan Bixente'k idatzi eustan orrelako gaietaz idazten jarraitzeko, ni nitzalako orretan alegintzen nitzan bakarra. Alegin bizia egin bear izan neban orretan jarraitzeko, bai idazten eta baita argazkiak bialtzen be. Baiña Zuzendariak poz andia sartzen eustan bere idazkiekin eta orrela 1932, 33 eta 34 urtetan, ogei ta amasei lan bialdu neutsazan.

Aita Juan Bixente'k ondo ordaitzen zitun bialtzen ziran lanak,

liburu barriak erosi al izateko edo geiago idatzi al izateko. Bera gizon gitxik dauken nortasunez bizi zan: gizonik txikienak be andi egin nai izaten zitun. Eta ori niretzat pozgarri izaten zan. Orretan gogoan daukat Varkhese jauna, Verapoly'n ataraten zan egunkari katolikoko zuzendaria. "Satyanathan" eukan izena. Aita Bixente'ren goratzaille andia zan. Arek esaten ekian irarkolan zuzen eta arteza zala, bai gintza ikastolan be, baiña ala izanarren esku zabal eta maitekorra zala, nai ta alper eta nagiekin traturik euki nai ez.

1931 eta 1934 bitartean, ainbeste karta egin geuntsazan alkarri. Geienetan aldizkariko idazlan eta goraberak aztertuten genduzan, baiña era berean banakaritza eta diru kontuak be erabilten genduzan, batez be India'ra etorri eta Alwaye'ko Seminarioan ziran ikasleen premiñei buruz. Aita Juan Bixente izaten zan euren kontuen arduradun.

Bere aldizkaria ondo atarateko eralgi bear zana eralgiteko gertu agertzen zan beti, ba ekialako India'tik bialdutako jakingarriak askoz be egokiago zirala españar irakurleentzako, beste bertako goraberak baiño.

Origaitik illero karta bat idazten eustan. Bere idazkiak luzeak ziran, epistolen antzeko asko, eta danak bere eskuz idatziak. Orretarako ez eban makinarik erabilten. Bere idazkera, bere izkiak, garbi, zeatz eta dotoreak ziran, zirrimarratu barik. Bere kartetan ikusten da bere nortasun jatorra. Niretzako idazki goragarriak ziran eta origaitik garrantzitsuenak, ogeitamar inguru, gogoz eta biotzez gordeten nebazan. Egia esateko, karta asko artzen ba nitun be, bereak bakarrik gordeten nitun, norberari dagokiozanen artekoak beintzat. Niretzat Mixiotako apostolu batek idatziak ziralako.

Bera il zanean, bere zorion izateko auzia zabaldu zanean, Jesusen Aita Sabino auzi orretako eskalearen gurariz, danak bialdu nitun auzian sartuta egon eitezan. Ba neukan itxaropen bat barriro eurekin jaubetzeko, bein kopiak atarata gero, baiña itxaropen ori galdua daukat. Orain, nire adifñean eta ni nagon tokian, Kuwait'en, bear ba da ez litzakez niretzat ain garrantzizko.

Karta batzutako gaiak era batera nai bestera artzekoak dira. Orretan berak bere usteak eukazan. Esate baterako, Alwaye'ko Seminarioa jasoten gabiltzala, berak Verapoly'ko Seminarioa deitzea nai

eban, lengo seminario zarraren izenean eta oiturari jarraitzeko. Erantzun neutsan Verapoly'ko Seminarioa, Puthempally'ra aldatu zanean, izena be aldatua zala. Eta orain, Puthempally'ko Seminarioa Alwaye'ra aldatzean oraindik gitxi ezagutzen zan toki barriaren izenagaz deitu bear zala, eta orrela laster mundu guztian, mixiolarien arteko mundu osoan ezagutua izango zala.

Beretarra zan baita be ikasleen diru ordaintza kontuan. Ba egozan España'n errepublika eratu zanean, andik igesi Alwaye'ra etorritako ikasleak. Gure Seminarioa Sorkaldeko Batasunaren agintzapean egoan, nai ta Nabarra'ko San Joakin errialdearen kontura bizi eta origaitik gure ikasleak beste tokietako abade ikasleak lez ordaindu bear zituen euren ikasketak.

Aita Juan Bixente'k ez eban orretara pentsatzen. Bere ustetan, ikasletako batzuk, euren ikastaroak amaitutzean, irakasletzat artuko ziran, eta origaitik ordaindu bearretan zerbait gitxiago ordaindu bear eben, euren gastuen neurrian berakada bat egiñaz. Euki gendun eztabaida pixkat, baiña Aita Juan Bixente'gaz beti amaitzen zan ondo.

Nai eta guri egokiguna izan ez, batez be Seminarioari egokiona izan ez, Aita Juan Bixente'k itaundu eban iñoiz kristau barri bategaitik "La Obra Máxima" k bialtzen ebana naiko ete zan, edo ta komeni ete zan zerbait geiago eralgitzea kristau barri baten gertaeretan. Ez dakit ziur zer erantzun yakon.

Bere idazkietako baten gogotsu eta itxaropentsu itz egiten eban Estella'ko Estatutoari buruz. Beretzako Estatuto a Karlatar Estatutoa zan. Garaitza andia izan zala esaten eban Estatuto arentzako ainbeste teko laguntza lortzea, errialderako ontasun asko ekarriko zitula.

1935'ko Otsaillaren asieran idatzi neutsan Erroma'rako urtetera nindoiala, Algel Maria Monsiñorari laguntzen, au da, Verapoly'ko goigotzaingoa laga nai ebanari laguntzen, baiña ez nebala bere errialdera joateko asmorik. Erromatik India'ra biurtuko nitzala. Berak esan eustan, norbere errialdetik ain laster egonda, bertaraiño joan nei keala.

Baiña bizitzako gertaerak orrelaxe izaten dira. Gongotzaiña eta ni Erroma'ra eldu giñanean, Garillean, an jakin gendun Aita Juan Bixente'k hemiplegi'ko zartada bat euki ebala eta bere lanak gelditu bear izan zitula.

Aita Ezekiel'ek telegrama bat bialdu eustan, esanez, gure errialdera joateko, andik Indiarako urten bear eben mixiolari barri biri lagundu bearko neutsalako.

Bagilla'ren azkenetan Begoña'ra eldu nitzanean, Aita Ezekiel'ek agertu eustan Aita Juan Bixente'ren gaixoak mixioak mantentzeko ondoren larriak ekarri eikezala. Urtero "La Obra Máxima" k mixioetara bialtzen eban dirutza agertu eustan: milloi pesetatik gora. Eta ori, 1935 urtean, diru asko zan. Kezkaz beterik agertu eustan, komeniko zala Aita Juan Bixente'ren ordezeko bat billatzea, eta olgetabenetan esan eustan ez ete neikean nik ardura ori artu, besteren baten laguntzagaz. Arana Monsiñorak Aita Aureliano'ren izena emon eban ortarako, bera zala-ta Aita Juan Bixente'ren lana eroan eikean bakarra. Baiña jakíña zan Aita Juan Jose, Seminarioko erretoreak, ez ebala lagako Aita Aureliano andik kentzerik.

Gure errialdea egíña egoan orrelako buruaustetan komeni zana artez billatzen, eta nai ta eginbearra andia izan, oraingotan be billatu eban.

Nire errialdera eldu nitzanean, Aita Juan Bixente ikusteko aukera euki neban. Corella'tik etorran, an atsedan pixkat artuta. Benetan min artu neban gizon altsu a, ainbesteko gizontasunez ezagutu nebana, gaixotasun baten mende ain makal ikustean, bere lanetarako be geldi erazota.


Ukigarri eta biotz ikutugarri izan zan benetan, bere garren menpean gizon a jausita ikustea, ain zuzen be bere mixio lanetan ezagutu eban garraren menpean, bere indar guztiak menperatuta ikustea. Nik ikusi nebanean, bere zartada gainduta eukan.

Alkar izketa bat euki gendun eta azkenean agur egin neutsan, India'ko mixiolari guztientzat bere onespina eskatuz.

Andik egun bitxitara Malabar'erako bidean asi nitzan. Gure idazkiak, gure kartak, etenda geratu ziran.

Aita Juan Bixente'ren zoriontasun auzia Erroma'n sartuta dago. Itxaro daigun etorriko dala eguna Santu izena emongo dautsena eta bide batez, Mixioetako laguntzaille deitura, batez be berak ain gartsu lan egin eban India'ko lurraldetako mixioen laguntzaille.

Bere jarraitzalle asko dagoz egun orren zain. Gure Malabar'eko Mixioientzako egun ori egunik andiena lez izango da euren bitzitza eta ekintza jatorrean.



GAIÑERAKOA

Bernardo Arginzoniz, Monsiñora

1870 - 1933

Frailetu baiño lenago, Arginzoniz'dar Felipe deitzen zan. Amorebieta'n jaio zan 1852 urteko Maiatza'ren 26'an.

Markina'ko fraile-gai edo nobiziadutzan egin zitun bere eskintzak 1870 urteko Azilla'ren 24'n, eta 1876'ko Bagilla'ren 10'ean abadtzara eldu.

Mendizabal'ek 1835 urtean Erlijioako Ordenak mututu eragin ondoren, 1869 urtean Markina'ko konbentuan sartu ziran lau gazte-tako bat zan, San Joakin izeneko errialde edo probintzia barriztu ondoren. Eta Jesus'en Bernardo izena aukeratu.

1879 urtean Burgos'ko Jakintza edo Filosofi ikastetxeko irakasle autu eben.

Aldi aretan mauxu gazte onetan bere jakintzarako gaitasun sakona igarri eta emoten asia zan, eta bere maixutzarako doaiak laster ezagutu ziran, bai eta era berean bere ikaslientzako agertzen eban maitasuna be edozeinek ikusi al izaten eban.

1882 urtean Burgos'ko Ikastetxetik Markina'ko Teoloji Ikastetxera aldatu eben, era batera Nagusi eta Ordenako Begirale zala.

Alaz eta Aita Bernardo'ren gogoan beste gai bat ebillan eta bere deia Mixiñoietan lan egitekoa zala konturatuta, urrengo urtean India'ko Sarkaldeko Mixiñoetara joatea eskatu eban.

Genoba'ko gure konbentuan egin eban Mixiolari eskintza, 1883 urteko Maiatza'ren 21'n, eta andik Malabar'era urten. Ibillaldian illabete zeatz egin ondoren, 1883'ko Bagilla'ren 21'n eldu zan Verapoly'ra.

Emendik Puthempally'ko Abadegaien Apostoluar etxera bialdu eben, eta an urte batzutan Jakintza eta Teoloji irakasle eta Abadetxeko Gogo zuzendaritza be bere kontura euki ebazan.

Aldi aretan, urteko oporretan, Kottayam'go errialdera joaten zan, eta zurtasunez Barri Onaren azia ereiten asi zan. Nai ta lenengo urtetan frutu gitxi lortu, denporekaz bateko eun lortzera eldu zan.

Origaitik Aita Bernardo dala esaten da oraingo Vijayapuram'go Mixiño ta Gotzaingoaeren sortzaille eta Aita.

1893 urtean Erroma'ko Elkarte Santuak, Aita Bernardo au siritar eta malabar era ta oituretako Irugarrendar karmeldar Oññutsen Elkarteko Nagusi orokorra izentatu eban.

Ardura ori 1902 urteraño bere kontura euki eban. Eta Elkarte berbera izan zan zeregin ori aldatu eutsana, Elkarteari sortalde aretako lenengo Nausi orokorra izentatu eutsenean, ortarako Elkartek euki eban Batzar Nagusian Aita Alejandro San Jose T. O. C. D. nauzitaz aukeratuz.

1893 urtean Verapoly'ko Mixiñoen Begirale Nausi autua izan zan, eta 1894'ko Urria'ren 10'ean, Verapoly eta Quilon'go Mixiolarien Ordenako Nausi.

1896'ko Urtarilla'ren 14'an Verapoly'ko Gongotzain edo Artzobispoaren laguntzaille autu eban, bere oiñordeko izateko eskubidez, Filipino'ko gotzain deituraz.

Manjumel'go eleizan artu eban gotzaintza, 1896'ko Dagonilla'ren 8'an, Quilon'go gotzai zan Fernando Ossi O. C. D. Monsiñoraren eskutatik, eta Leonardo Mellano gongotzain jauna il zanean, 1897'ko Dagonillean, Verapoly'ko gongotzain edo artzobispotza bere gain artu eban 1897'ko Dagonilla'ren 19'an.

Nai eta Mixiolari asko euki ez eta diru laguntzaz be urri ibili, ainbeste premia eukazan Mixiño lurralde aretan, Aita Bernardo gotzain zala aurrerakuntza andia egin eban Verapoly'k.

Lentxuago bera mixiolari ibili zan Kottayam errialdeko Barri onera biurtzeak gogoz artu zitun. An sinismen bako asko kristautasunera biurtzen asiak ziran, eta kapillak zabaltzen asi eta eleiz barriak jaso bearra agertu zan. Bere denporetakuak dira, beste batzun artean, Chengalam (1902); Podimattan (1905); Kurchy (1906); Amayanur (1906); Vazhur (1907) eta abar.

Neska eta mutil gazteen eziketarik ez eban bastertu; 1908'ko Maiatza'ren 20'n, bere Gotzain etxearen alboan, abadetzara deituak ziranen eziketa alegintzeko Abadegai Ikastetetxe txikia zabaldu eban.

Orrela, bere apostolutar zerekiña beteten alegindu zan, berari egokion eran.

Bere eskabidez gotzain laguntzaille bat izentatu eutsen, 1915 urteko Bagilla'ren 18'an. Teresa Donearen Aita Angel zan.

1919'ko Epailla'ren barruan bere gotzain ardura laga egin eban, eta urte bereko Maiatzean Malabar lurraldetik urten zan, 1883 ezkerroztik ainbeste lan eta izerdi emon zitun errialde aretatik.

Larisa'ko izendun gongotzai izendatu ondoren, Karmel mendira joan zan bizitera, Karmen'go Amaren oiñetan bere Mixioaren alde otoitzean jarraitzera.

Karmel mendiko giroa ez zan bere osasunerako egokia eta osagi-llien esanei jarraituz, bakartade a laga eta Castellon'go Las Palmas desertura aldatu zan, munduari iges egiñez, eta karmeldar arauak zintzo beteten alegin bizia ipiniz. An bizi zala jakin eban bete antxiñako Mixiño tokia gotzaingo edo obispadutza lez eratuia izan zala.

Nai ta urtetan aurrera joan, karmeldarren eguneroko zeregin eta ekintza guztietara joaten zan, gaberdikoetara be bai, ibili eziniñez gelditu zan arte.

Jaungoikuak emon edo bialdu eutsan gorputz gelditzea eroape-nez eta poztasunez artu eban, eta bere elkarteko anaiak inguratuta, santutasunez il zan 1933 urteko Maiatza'ren bostean.